

TOKIKOM

2011ko azaroa | 109. zenbakia

aitzak!

txorierriko aldi

Iñaki Suárez, sommelier

Anfitrion

EUSKARAREN EGUNA

Txorierrin 2011

**4URTEN
LARRABETZUN**

AZARDAK 26 (LARUNBATA)

18:00ETAN LARRABETZUKO FRONTOIAN:

EUSKAL JOLASEN TXAPELKETA
(Euskara elkarteen artean)

20:00ETATIK AURRERA FRONTOITIK HASITA

"TABERNA IBILTARIA"
TALDEA



ABENDUAK 1 (OSTEGUNA)

20:00ETAN ANGULERI KULTUR ETXEAN

MAHAI-INGURUA:
"EUSKAL KULTURAREN
TRANSMISIOA BERMATUTA
DUGU?"



AZARDAK 27 (IGANDEA)

10:00ETAN FRONTOITIK HASITA

SENDABELAR IBILALDIA

18:00ETAN LARRABETZUKO FRONTOIAN

KANPANDLUE HAUR-BERBENA



ABENDUAK 2 (OSTIRALA)

23:00ETAN HORI BAI GAZTETXEAN

**"RAFA RUEDA
ETA ESTANKONA"**
KONTZERTUA

ESKOLAK

AZARDAK 29

LARRABETZUKO FRONTOIAN, 09:30-12:00 (bi saio)

**ZIRIKA ZIRKUS
PAILAZOAK**

4-5-6 URTE



AZARDAK 30

LARRABETZUKO FRONTOIAN, 09:30-12:00 (bi saio)

ERREGAIA ETA BUFOIA

10-11 URTE



ABENDUAK 2

LARRABETZUKO FRONTOIAN, 09:30-12:00 (bi saio)

MARSEL MAGDA

7-8-9 URTE



ABENDUAK 3 (LARUNBATA)

18:30EAN LARRABETZUKO FRONTOIAN

**KUKAI DANTZA KONPAINIA
"SORBATZA"**



19:00ETAN "GURE ETXEA"KO ARETOAN

BERBA ZAHARREN TXAPELKETA



**TXORIERRIN
MAY 2011**



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Bego Vicario, Itsasne Zubiri, Bestorrene, Oihana Astobietta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 Ramón Agirre



24 Euskararen Eguna



30 Larrabetzu Motor Racing

- 4 Eritxia
- 5 Gutunak
- 6 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Txorien herria
- 12 Gurean izan da... Ramón Agirre, aktorea
- 14 Gaztea eta... Igone Regidor
- 17 Publierreportajea
- 18 Iñaki Suárez, sommeliera
- 22 Aitor Koterón, *Bi anai* filmaren protagonista
- 24 Euskararen Eguna
- 26 Gudaren aztarnak, Loion
- 28 Txorierriko azokak
- 30 Elkarreak... Larrabetzu Motor Racing
- 32 Osasuna... Atsedeen-sistema egokiena
- 34 Teknologia... Emakumea eta Zientzia
- 34 Aikorrizketan... Pablo Zamarripa Uruga
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

• **BEZERO ARRETA:** bezeroen galderei erantzutea, bezeroen fidelizazioa lantzea • **TELEMARKETINA:** inkesta, telefono bidezko salmenta zuzena •



bidera dei zentroa

www.bidera.eu/deizentroa



943-30 40 30

deizentroa@bidera.eu

**BEÑEN GANA***(Txepetxa AEK euskaltegiko arduraduna)*

Gure belaunaldikoek ezagutu izan ditugu Francoren erregimenarenpean bizitzeak zituen baldintza gogorak. Bizi izan ditugu ETaren sorrera eta ibilbidea; langileen erakunde ezberdinak, indarra hartzen; baita Elizaren eragina, ibilbidea, eta, nolabait esateko, gainbehera ere. Alderdi politiko batzuen eraketa, haien arteko lehia-erabaketa, lorpenak, porrotak, oztopoak gainditzeko grina... Eta beste gauza interesgarri edo hezitzaile batzuk ere eza-gutzeko zortea edo zoritxarra izan dugu.

Osotasunean

Bai, hori guztia Historia dela pentsatuko duzue, gure ondorengoei kontatu beharrekoa; baina, kontuz, nork idazten duenaren arabera alde batekoa edo bestekoa izango baita.

Herri langilea gara, nahiz eta gure artean langabezi handia egon. Politika ekinbide garrantzitsua dugu, baina norbanakoengana botoa eskatzeko orduan baino ez gara hurbiltzen. Kultura balio sakona eta ikaragarria dugu, nahiz eta gure Udalek kulturaren sano gutxi inbertitu. Gazteak gure etorkizuna direla aldarrikatzen dugu, baina haiek ez ditugu hainbeste kontuan hartzen, euren gaztetxeak suntsitzen uzten dugu eta ez diegu gunerik eskaintzen, euren ideiak eta proposamenak aurrera ateratzeko. Kontrolpean ez daudelako, akaso? Euskara gure hizkuntza da, baina gehiengoa erdaraz bizi da lasai asko bere etxean, lagunaren artean, katean, udaletxean, txokoan eta... Puntu honetara helduta, euskarara hain zuzen ere, gura dut iritzia emateko atal honek, beneta-

ko hausnarketa egitea proposatzeko balio izatea. Euskara elkarteko eta euskaltegiko partaidea naizen heinean, argi ikusi dut gure eskualdean zelako ibilbidea egin den eta nolako bilakaera izan dugun. Eta edozeinek ikus dezake hezkuntzan egindako aurrerapen handia, lanerako balio erantsia izatearen garrantzia, bide garrantzitsuak izan direla euskara sustatzeko. Baina ez dago azterketa soziolinguistiko handirik egin behar edozeinek ikusteko ez dugula behar den beste egin erabileran gora egiteko. Tituluaren bila dator ikaslea euskaltegira, baina erdaraz bizi da lasai asko. Horregatik, oraindik ere, bideak bilatu behar ditugu, gure herrian euskaraz benetan bizitzeko. Gura badugu, egingo dugu; eta ez badugu gura, ez. Baina euskaraz bizi gura duenak horrela aldarrikatu behar du. Nik euskaraz bizi gura dut, osotasunean.

Azterketa sakona egiteko garaia dugu, krisi honetatik indartsu atera behar dugu. Gura dugun Herria planifikatu eta urrats garrantzitsuak eman behar ditugu, Bestela, beste norbaitek gure ordeztu egingo du, eta ez da guri dagokiguna izango.

Sarritan, oinez jotzen dugu Larrabetzutik Zamudio aldera, Teknologia Parke-tik buelta bat emateko. Larrabetzutik irten eta badago espaloia eskuman, ia herriko mugaraino. Bidea amaitzen denean, errepidea gurutzatu behar dugu zirkulazio-arauegia bete nahi badugu, eta zintarririk ere ez duen errepide gordinetik gutxi gorabehera kilometro erdia egiteko. Lezamako bigarren autobus-geltokiaren parean berriro gurutzatu behar dugu, eskuman Kurtze auzoraino doan espaloia dagoelako. Handik Teknologia Parkeko sarreraraino, errepidearen hegaletik ibili behar da berriro, trafikoa asko areagotzen dela. Gainera, kamioiak apar-katuta dauden lekuetan errepidetik ber-

Bizi Txorierri

**BEGO VICARIO***(Irakaslea)*

tatik ibili behar da zenbait kilometrotan.

Parkera heltzen naizenean, hankak gabe burua dut oso nekatuta, gure inguru honetan ibiltzea oso estresagarria baita. Gure paseoa ez da batera lasaigarria; are gehiago, arriskutsua da. Hala ere, asko dira bidean zehar topatzen ditudan lagunak, oinez eta bizikletaz. Ni bezala, haurrekin zein taldean irteten direnak, gorputza mugitzea oso sana baita eta ez dugulako etsi nahi.

Berri ona izango da guztiontzat, Bizi Txorierri taldeak bultzatuta, ibilbide hau zein Bilbora heltzen den adarra bidegorriz hornitzen direnean. Espero dezagun krisia aitzakia berriro ez izatea, proiektuan dagoen hobekuntza hau ez burutzeko.

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbreia eta opariak



Tallerrakalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortexori@aikor.com.

Oinezkoentzako pasabidearen proiektua

Zamudioko Udalak oinezkoentzako pasabidea eraikitzeko asmoa du gaur egun egiten dabiltzan udal ikastetxe berriaren parean. Herritar batzuok ezin baino kezkatuago gabiltza proiektuarekin. Gure iritziz, egitasmoak oso ondorio negatiboak izango ditu herrian, ingurumen-eragin handia ekarriko duelako. Ikuspegiak eragin estetiko txarra edukiko du eta akustikaren aldetik arazoak sortuko ditu. Eta bereziki segurtasun-mailak egingo du behera, erabiltzaile gehienak haurrak eta edadekoak izango direla kontuan hartzen bada. Bestetik, auzokideen interes ekonomikoak hondatuko dira, eta pasabidetik gertu bizi direnen bizikidetzatza ere bai. Horrela, pasabideak eragin handiena edukiko duen jabeen komunitateetan nagusi dira proiektuaren kontrako botoak (%68,29). Hau guzti hau ekiditeko, hiru aldiz batzartu gara oraingo alkatearekin eta gobernu-taldearen zati batekin. Bileren bitartean, udal ordezkariak beste bilera bat eduki dute, euren ustez kaltetua den auzokide bakkarekin. Auzokideak berak jendaurrean hala onartu du behin baino gehiagotan.

Aipatutako hiru batzarretan, Udalak zeharo baztertu du proiektua bertan

behera uzteko aukera, baita beste alternatiba batzuk topatzeko aukera ere. Guk egitasmoaren kontrako iritzia adierazi diegu, eta aurkeztutako azken egokitza-penaren kontrako jarrera ere bai, horretan estetika baino ez dutelako kontuan izan, eta ez pasabidea bera eta kokale-



kua. Proiektuaren harira, beste proposamen bat egin dugu guk: lurrazpiko pasabidea egitea. Baina Udalak oso argudio ahulak bota ditu horren aurka, "lur azpian egiten bada, ez du inork zeharkatuko" esaldia tartean. Gure ustez, edozein obratan puntu batzuk bermatu eta bete behar dira, inguruko auzokideak kaltetu barik, hala nola mugikortasunaren arautegia, segurtasuna, akustika, erabilerraztasuna eta estetika. Honi dagokionez, guk proposatutako ezaugarri bat aipatuko dugu: pasabideak nahikoa zabalera eduki behar du, larrialdiren bat gertatuz gero, anbulantzia batek hura zeharka dezan.

Laburbilduz, Udalak oinezkoentzako pasabidea bai ala bai, alternatibarik gabe, eraikiko duenez, bere jarrera zurruna berriro aztertzeke exijitzen diogu, eta herritarren interesak kontuan har ditzala. Lanak indarrean dagoen arautegiarekin bat datozen ez dakigu, hori aurrerago aztertuko dugu. Bitartean, informatzeko, ekiteko eta gure protesta aldarrikatzeko eskubideari eta betebeharrari eutsiko diegu, kasuz kasu baliabide legalak eta egokienak erabiliz.

Auzokide kaltetuek

BAR RAFI
ESPEZIALTATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBATARRITZA
Nerea Pedraza Cals. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Peñasko
arraindegia
Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

HORTZ KLINIKA
Idoia Zubieta
Omasun-zentrua & Hortz-estetika
HORTZ-PLANTEAK - ORTUDOSPOTZIA-ESTETIKOA
HAURREK ZIN HELBIDEAK
Dr. Arciniega, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urtze plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Futbol-zelaia atontzen dabilta Kurtzen

Kurtze Lezamako auzoko futbol-zelaia orain dela hilabeteak zabaldu zen jendearentzat. Zelaia aukera ematen du bertan hainbat jarduera egiteko: areto-futbola, eskubaloia eta saskibaloia, esate baterako. Ingu-ruan 40 autoentzako lekua egokitu zen. Udala lan osagarriak egiten dabil azpiegituran, hala nola, zelaia ixtea, argiak jartzea eta loreak landatzea. Lanetan 118.000 euro ipini dira. Lanok urtea amaitu baino lehen bukatzea espero da.

Aipamen berezia, Zinebiexpressen

Zinebiexpress laburmetrai azkarren Bilboko lehiaketa da. Jon Gokouria sondikoztarak eta Haimar Ruiz leioztarrak *Día de paga* lana aurkeztu dute lehiaketara. Laburmetraiak epaimahaiaren aipamen berezia jaso du "akabera teknikorik onena" kategorian. "Oso pozik gaude, bai sariarekin, bai lortutako emaitzarekin. Euria barra-barra ari zuen grabazio egunetan, baina azkenean eguraldi kaskarra bigarren mailara pasatu zen, grabazioan izugarri ondo pasatu genuelako". Lehiaketak Krisia eta aurrerapena izan du gaitzarturten, eta egileek 50 euroko billete batek egiten duen ibilbidea azaldu dute laburmetraian. Horretarako, Charles Chaplinen izen bereko lanean oinarritu eta zinema mutuaren garaira egin dute atzera.

Aurrekoetxea, Gizon Proba Txapelketan



a: Txorierriko Herri Kirol Taldea

Azaroaren 27an, domekan, Euskal Herriko Gizon Proba Txapelketa egingo da Nabarnizeko probalekuan, banakako kategorian. Aurtengoa lehenengo aldia izango da txapelketan txorierritar bat ibiliko dena, izan ere, Iñigo Aurrekoetxea "Gotxa" zamudioztarrak hartuko du parte bertan. Aurrekoetxea Euskal Herriko kirolaririk onenekin ariko da norgehiagoka. Parte-hartzaileek ahalik eta metro gehien eraman beharko dute herrestan 800 kiloko harria. Horretarako, ordu erdi edukiko dute. "Denbora gutxi eduki dut entrena-

tzeko, eta, ondorioz, badakit aurtan ez dudala aukera handirik izango. Hala ere, pozik nago, denbora gutxian nahikoa maila lortu dudalako, Euskal Herriko kirolaririk onenekin aritzeko. Hori "Urpe"-k hasiera-hasieratik eman didan laguntzari esker lortu dut".

Aurrekoetxeak 10 urte daramatza herri kirolari lotutako probetan parte hartzen. Orain arte harrizulatzaileren txapelketan ibili da, eta, besteak beste, titulu hauek lortu ditu: Euskal Herriko Harrizulatzaileren Liga (2010 eta 2009), Euskadiko Binakako Txapelketa (2008, 2006 eta 2005) eta Burdinazko Harrizulatzailera (2008).

ANULACIONES SEPTICAS
MUNGIA 24
Carbónes y mantenimiento-larri
24h
Hobé septicas
Pinos, 2C, 4, nabia 1 48170 Zamudio BIZKAIA
T: 94 446 02 09 / Fax: 94 446 75 99
mungia@sanseamienomungia.com | www.sanseamienomungia.com

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrefarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ASADOR ARAMENDI
EZKONTZAK BATAIOAK BANKETEAK JAUNARTZEAK
Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

LEANDRO LANDETA
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz. Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



Euskal rockaren historia, Zamudion

Rock-a 50eko hamarkadan sortu zen Estatu Batuetan. Handik hona, garapen handia izan du, eta mundu osora zabaltzen da. Euskal Herria ez da salbuespena izan. Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak rock-aren gaineko ekimena antolatu du abenduaren 1erako, iluntzeko 8etan, Zamudiotarren. Han, euskal rock-aren aztarnak, historia eta pasarteak modu eraginkor eta praktikoa baten bidez hurbilduko zaizkie parte-hartzaileei. Horretarako, musika-estilo honen hastapenak errepasatuko dira, eta, bereziki, Euskal Herriko

rockean sakonduko da: argialetxeak, taldeak, gertaera bat edo bestea markatu duten abestiak, diskoen gainbehera eta industriaren birmoldaketa, besteak beste. Horrezaz gainera, musikaren entzunaldia egongo da eta mahai ingurua egingo da. Rock musika tresnen inguruko solasaldi teoriko-praktiko laburra ere eskainiko da. Ekimenean, Ritxi Aizpuru musika editoreak eta Alex Sardui eta Haimar Arejita Gati-buko musikariek hartuko dute parte. Baga-biga argialetxeak sustatu du ekimena.

Bestetik, Lagatzuk "Olentzero-Gabonak, kontaguzuz" lehiaketa antolatu du, lehen hezkuntzako 2. mailatik 6. mailara bitarteko umeei zuzenduta. Bigarren mailakoek orrialde bateko lana idatzi behar dute; eta gainerakoek, orrialde batetik gorakoa. Lanak elkartearen postontzian utzi ahal izango dira (Aresti 2, behe) abenduaren 19ra arte. Lanak gutun-azal handi batean aurkeztuko dira, eta barruan beste gutun-azal txikiago bat sartuko da. Bertan datu hauek jarriko dira: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Gutun-azal txikiaren kanpoaldean kategoria idatziko da. Sariak abenduaren 29an banatuko dira, iluntzeko 8etan, kiroldegian. Hiru sari emango dira kategoria bakoitzean, eta irabazleek material didaktiko erosteko diru-txartel bana jasoko dute sarritzat. Tor magoak saioa eskainiko du bertan.

GABONETAKO LOTERIA
aikor!
65962

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA
Makón
www.patxi.coop

Sakelako telefonoa: 945 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarte kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✆ faxa: 94 452 25 87
patxiscoop@patxi.coop

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbeia kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Garaje-partzelak kontzesioan, Derion

Derioko Udalak 76 garaje-partze-
la aterako ditu 50 urteko kontzesio-
an; haietako hiru minusbaliotasunen
bat edo mugikortasun murriztua
duten herritarrentzat dira. Minusba-
liaturen bat bere ardurapean dute-
nek ere aukera izango dute partzela-
ren bat eskuratzeko. Partzelak Kultur
Birikako lurpeko aparkalekuan
daude. Partzela bakoitzak 8.500 euro-
ko balioa du, eta horri BEZa gehitu
behar zaio. Derion eskaintza publikoa
egin baino lehenagotik errolatuta
dauden pertsona fisikoek hartu ahal
izango dute parte adjudikazioan,
baita herrian negozioren bat dutenek
ere. Interesdunek auto edo motozi-
kleta baten jabe izan behar dute, edo
hura renting edo leasingean eduki.
Herrian garaje-partzela dutenek ezin
izango dute adjudikazioan parte
hartu. Eskakerak abenduaren 16ra arte
aurkeztu ahal izango dira.

Mendi ibilaldia, Loiu

Azaroaren 27an, Mendi Ibilaldia
egingo da lehenengo aldiz Loiu.
Ibilaldia Loiu hasi eta amaituko da
eta Lauroetatik eta Unbetik igaroko
da. Izena goizeko 9:30ean eman
beharko da plazan, eta doakoa izango
da. Parte-hartzaileak 10:00etan irten-
go dira handik, eta aurreikusita dago
herrira eguerdiko 12,30ak inguruan
itzultzea. Arrastiko ordu batean, txitxi-
burruntzia eskainiko da eta horren
ostean opariak zozketatuko dira.

Pontevedran ere irabazleak!

Urriaren 30ean Taekwondo Nazioarte-
ko Opena egin zen Pontevedran, eta han
Portugal, Cabo Verde eta estatu osotik
etorritako 800 kirolarik hartu zuten parte.
Haien artean, Doyan Klubeko 23 taek-
wondolari egon ziren: zazpi neska eta 16
mutil, hain zuzen ere. Guztiek gutxienez
borrokaldi bi egin zituzten. Bestetik, aipa-
tu beharra dago Open horretan ibili diren
lehenengo aldia izan dela.

Haurren kategorian talde derioztarra-
ren zortzi kirolari aritu ziren. Arautegiak
ezartzen duen bezala, borrokaldiak bular-
babesera zuzendu ziren, eta guztira sei
domina lortu zituzten: urrezko bi, zilarrez-
ko hiru eta brontzezko bat. Gainontzeko

kategorietan, teknikak Taekwondo Mun-
duko Federazioak arautegian baimendu-
tako gorputz-ataletara zuzendu ziren.

Kadeteen mailan zortzi txorierritarrek
hartu zuten parte. Borrokaldiak oso es-
tuak izan ziren, eta gure neska-mutilek
euren trebetasuna eta esperientzia eraku-
tsi behar izan zuten. Zilarrezko hiru meda-
lla eta brontzezko medalla bi lortu zituz-
ten. Maila handiago eta zorrotzago bihur-
tu zen junior eta seniorren kategorietan,
eta gazteek hiru borrokaldi irabazi behar
izan zituzten, domina lortzen lehiatzeko.
Kategoria horietan zazpi kirolari aritu zi-
ren norgehiagoka, eta brontzezko domi-
na bi eskuratu zituzten.



LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

Albaitaritza
HENAR ORTUONDO
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefona: 944 543 705

GAZTELEKU TABERNA
Andra Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97

*oketako arrak
egiten duguz*

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Horma-Armairuetan eta Erreformatan Espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisine, 2 - Belako Elkarteia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA



Ohiko abestiak jaso dituzte CD batean, Zamudion

San Martin jaien egitarauaren barruan, *Zamudio, lehen, orain eta beti* diskoa aurkeztu zen jendaurrean. Lana Udalak editatu du eta Xabier Aburruzaga musikariak produzitu du. Diskoa 17 kantuk osatzen dute. Horietako 15 abesti tradizionalak dira, *Salamankara* eta *Nire aitak amari*, esate baterako; eta beste biak, Aburruzagak egindako konposizio berriak. Azaldu dutenaren arabera, abestien bidez ibilbidea egin da inguruko musika tradizionaletik, ia galtuta zeuden

doinuak berreskuratuz, eta beste abesti ezagunago batzuk berriro interpretatuz eta egokituz. Besteak beste, Natxo de Felipek, Mikel Markezek, Antxon Lasak, Amaia Zubiriak eta Mikel Urdangarinek hartu dute parte diskoan. Era berean, herriko zenbait musikari ere aritu dira grabazioan, hala nola, Zamudioko Kamara Korala, Gazte Elai txistu taldea eta 40 umek osatutako ahots zurien abesbatza. Diskoa iazko abenduan grabatu zuten Elkar estudioetan.

Euskarazko pintxorik onenak

Urrian AhoZgozatu kanpaina egin zen bigarren, Txorierrin, Mankomunitateak antolatuta. Ostalaritzan euskararen erabilerara bultzatzea izan zuen helburu. Ekimenean 20 taberna hartu zuten parte, eta irabazleak hauek dira: Tindaya Sondikako taberna (Hiru gaztazko moussea Pedro Ximenezen erara, almendratu krokantearekin eta besoarekin); Adarve Derioko taberna (Berenjena); Aretxabala Larrabetzuko taberna (Itsasoko lurrina, brisa apokaliptikoaren gainean); Lejarrene Lezamako taberna (Bakailao-xerra pil-pilean, bole-tusekin); Gure Etxea Loiuko Jubilatuen

Etxea (Txangurroz betetako txipiroiak, soja-saltsan arrautzazuak); eta Errota Zamudioko jatetxea (Lurra). Pintxorik onena bezeroek eurek aukeratu zuten herri bakoitzean. Irabazleek diploma bana jasoko dute saritzat. Gainera, pintxoaren aukeraketan parte hartu dutenen artean zozketa egin da. Irabazleak hauek izan dira: Josu Gijarro, Sondikan; Idoia Zarate, Derion; Marian Esnal, Larrabetzun; Ruben Ramos, Lezaman; Eguzkiñe Iruretagoiena, Loion; eta Karolina Alfonso, Zamudion. Haiek 30 euroko bonoa jasoko dute, kanpainen aritu diren tabernetan gastatzeko.

Meñika, etxean

Ibon Meñika zamudioztarra azaroaren 12an irten zen Teixeiroko kartzelatik, ezarritako zigorra osorik bete ostean. Gaztea Jarrai-Haika-Segi auziaren haritik epaitu, eta sei urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Zigor horren zati bat aurretik zuen beteta, eta 2007ko otsailean sartu zen kartzelan azken aldiz. Zamudiotik 25 lagun abiatu ziren autobusez Galiziara gaztearen bila. Meñika goizeko 10etan irten zen kartzelatik, eta arrastiko sei eta erdietan heldu ziren Zamudiora. Herriarrek ongietorria egin zioten gazteari, eta ekitaldian 400 lagun inguruk hartu zuten parte.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



**BARATEGIA
J. ELORRIAGA**

Etxeko berezitasuna: bertoko okela

Iburrikotxe, 7
Tfn: 94 455 89 41
LARRABETZU



Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu

656 786 744 94 455 80 20



Peluleria

Estetika

94 455 81 44

Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia



Oguiza

Hortz Klinika

Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzolen tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendia
konponketak

Angulen enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

Ai amatxo!

Azaroaren 5ean Izarren Distira! galea egin zan bigarren ez Sondikako Kultur Etxean. Aurreko edizioan moduan, aretoa leporaino bete zan, eta gure izar gazteak inoiz baino distiratsuago aritu ziran.

Eguraldi-aurreikuspenek ez eben kale egin, eta egun osoan zehar barra-barra ari eban euria. Baina eguraldi txarrak ez eban ikuskizuna ilundu. Sondikako Kultur Etxera txorieritar-andana handi bat hurbildu zan eta sarrerak berehala agortu ziran. Ikusmina nagusi zan publikoaren artean, eta taula gainean aritu ziran gazteek ez eben inor desengainau, talentua sobran dabelako. Galea Nerea Aliasek aurkeztu eban. EITBko aurkezleak profesionaltasun eta erraztasun handiz emon eutsen txandea parte-hartzaileei.

Izarren Distira! Talentu Lehiaketaren Durangaldeako irabazleek euki eben ikuskizunari hasierara emoteko ardura. Horreen ostean, Txorierriko artistak igon ziran eszenatokira, aretoan bildu ziran guz-



Parte-hartzaileek erakutsitako maila hain zan handia, ezen erabagia hartzea ez zan bape erreza izan

tiei gozarazoz. Galan lau talde izan ziran. Kukuke Derioko taldeko antzezle gazteek mobimentuan ipini ebezan ikusleak, *Mamma mia!* abestian oinarritutako *Ai amatxo!* saioa hasi bezain laster. Gainontzeko parte-hartzaileek be dantzatzan eta

kantatzen parekorik ez dabela erakutsi eben. Halan, Sondikako eta Loiuko neska bik osatutako bikotea, June eta Zeiane, bizitasunez eta trebeziaz ibili ziran eszenatikozan zehar, eta Lezamako Zuri beltz taldeak be erritmoa zainetan daroela erakutsi eban. Bestetik, Idurre Sondikako dantzariak aho bete hortz itxi eban publikoa bere mobimentuakaz. Lehiaketaren ostean, eta epaimahaia erabagia hartzen zebilen bitartean, Getxoko galan aritu zan talde batek eta Revolta permanent hip-hop taldeak eskaini eben saioa.

Txalo beroak

Parte-hartzaile guztiek erakutsitako maila eta talentua hain zan handia, ezen epaimahaia ez eban bape erreza izan erabagia hartzea. "Asko pentsau ostean, Kukuke antzerki taldeari emotea erabagi genduan. Saria emoteko orduan, besteak beste, euskerearen erabilera hartu dogu kontuan, eta talde horrek *Mamma mia!* abestia euskerara egokitzen egundoko beharra egin daua uste dogu", esan deuskue epaimahaitik. Ha honeek osatu eben: Ugaitz Alegria aktorea eta dantzaria, Xabier Hoo Enkore taldeko abeslaria eta Laura Martinez, Txorierriko Mankomunitateko euskera teknikaria. Kukuke taldeko kideek bideo kamara bana jaso eben saritzat. Baina ez ziran galearen irabazle bakarrak izan, epaimahaia zein ikusleek gainontzeko beharra eta esfortzua be aintzat hartu ebezelako. Halan, bigarren Zuri beltz taldea eta Idurre lotu ziran, eta saritzat MP5 bana jaso eben. June eta Zeianek osatutako bikotea hirugarren gelditu zan; saritzat liburu eta diskoak erosteko bono bana jaso eben.

Pozik egoteko moduko galea eskaini eben Txorierriko izar gazteek zapatu hatan. Aurreko hilebetetan egindako behar gogorak eszenatokian euki eban isla. Izan be, gazteek 16 orduko ikastaro baten hartu eben parte, galea prestatzeko. Ikastaroa Ugaitz Alegria eta Ylenia Baglietto aktore eta dantzariak emon eutseen, eta han talde bakotzak behar eban alderdia landu eben. Saria publikoaren txalo beroetan topau dabe.

Izarren distira! lehiaketa Txorierriko Mankomunitadeak antolatutako ekimena da. Beste batzuen artean, gazteen sormena piztea, euren arteko harremanak sendotzea eta euskera eta aisialdia buztartzea dauz helburu.





Txorien Herria

Zorionez edo zoritxarrez, Loiuko aireportua da Txorierriri fama ona edo txarra eman dion eragileetako bat. Burdinazko txori ugari aineratu eta lurreratzen dira egunero. Pasa den urtean 3.888.969 bidaiarik erabili zuten aireportua. Turismoa bultzatzen duen azpiegitura dugu honako hau, eta hori ukazezina da. Baina, aldi berean, zarata-kutsadura, handik gertu bizi diren lagunen haserre eta hainbat ezbehar ekarri dizkigu aireportuak. Horren haritik, 494 etxebizitza eta bi ikastetxe intsonorizatu dira dagoeneko, eta beharretan dabilta hainbat etxetan. Era berean, argazki hau atera zen eraikineko teilak behin baino gehiagotan altxatu dituzte hegazkinek.

Gustatu ala ez, aireportua ezin daiteke tokiz mugitu, eta hegazkinekin batera bizi behar dugu, halaberharrez. Azken batean, txorien herria da honako hau.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak • Apopilo zerbitzua
Salo • Txangoak • Animalien heziketa

Telefona: **IBON - 659 90 75 88**
Aretxalde auzoa, 80 • 48106 LEZAMA



GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

- Menu berriak antzerketan
- Etxera orratzeko platerak
- Itardako antzerketak
- Egurreko menua eta karta
- Jakurtzeko eta edonitzak
- Jarduki zaharrik


R.º Garaioltza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



“Nahiago dut euskaraz lan egin”

RAMON AGIRRE | aktorea

Aurpegi ezaguna da Ramón Agirre aktorearena. Izan ere, hainbat aldiz ikusi dugu telebistan, zinean edo antzokian. Azken aldia Zamudiotorren izan zen, Inazio Tolosarekin batera egiten duen *Xentimorik gabe* ikuskizunean. Lagatzu Euskera Alkarteak antolatu zuen saioa.

Hizkuntzak nahastu dituzue, baina batez ere euskaraz egin duzue ikuskizuna. Zergatik euskaraz?

Egia da. Hizkuntza batzuk erabili ditugu ikuskizunean, hizkuntza batetik bestera salto egitea gustatzen zaigulako. Baina Inazio Tolosa eta biok euskaldunak gara, eta guretzat naturala da euskaraz egitea. Eta nik, oro har, nahiago dut euskaraz lan egin. Euskaraz egiten dudanean, zerbait gehiago egiten nabilela uste dut, eremu berriak aurkitzen nabilela. Aitzindari sentitzen naiz. Aktore askok eta askok egiten dute lan gazteleraz; euskaraz, ordea, askoz gutxiagok, eta gustatzen zait erreferentziak eta hitz-joko berriak asmatzea.

Musikak presentzia nabarmena izan du zure ibilbidean. Zelan moldatzen zara?

Umea nintzela, solfeoa eta gitarra jotzen ikasi nuen. Ez naiz lehen mailako

t: Gaizka Eguskiza / a: Lagatzu

Zer da Xentimorik gabe?

Zamudiotorrera ekarri dugun ikuskizuna. Protagonistak artista bi dira, eta euren ibilbidearen berri ematen dugu antzezlanean. Fikziozko pertsonaiak dira, eta munduan zehar ibili dira hogeitertan. Jende ezagunarekin batera ibili dira, denetarik egin behar izan dute... Arrakasta zein porrota ezagutu dituzte. Nahasteborraste itzela kontatu eta kantatzen dugu. Oso gustura ibili ginen, eta Zamudiotorre oso leku polita eta aproposa irudituzitzaigun, saioa aurkezteko.



ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Errementerri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Casas (Dental)
Txorierrri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Kepa Herguedas Manso
Col. nº 48000757

María Conde Bilbao
Col. nº 48000983

Mixine 6, bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.cdtxorierrri.com

musikaria, baina gustatu egiten zait: musika, kantua, gitarra... Ez dut bitan pentsatzen aukera sortzen denean. Beste alde batetik, eszenatokian giroak sortzeko ahalmena du musikak. Askotan, musika hitzak baino indartsuagoa da.

Hainbat film, hainbat telesaio.... Zein da gehien gogoratzen duzuna? Eta aktore edo zuzendariren bat aipatuko zenuke?

Oso zaila da bakar bat aipatzea, baina agian *Kaukasiar krezko borobila* lana esango nuke. 2007an, Miarritzeko Théâtre des Chimèresek eta Pok-ek elkarlanean ekoiztutako lana izan zen, Bertolt Brechten obra batean oinarrituta zegoena. Antzerki gordina, oso indartsua, inoiz egin dudan ederrena.... Oso saio gutxi eskaini genituen, baina ikusi duenak gogoan du oraindik. Aktoreei dagokie-nez, oso profesional on eta famatuekin batera aritu naiz, baina horretarako ez dago oso urrutira joan beharrik. Orain, *Goenkale* telesaioan nabil lanean, eta hangoak primerakoak dira, esate baterako.

Ramón Agirre

–**Jaioterria:** Donostia, 1954an.

–**Telesaioak:** *Goenkale*, *Mi querido Klikowsky*, *Médico de familia*, *Periodistas*, *Hospital Central*, *Cuéntame*, *El comisario*...

–**Filmak:** *Las trece rosas*, *Aupa Etxebeste!*, *XXL*, *27 ordu*...

–**Lankideak:** Federico Luppi, Juan Antonio Bardem, Manuel Gutierrez Aragón, Antonio Mercero, Ramón Barea, Jose Coronado, Imanol Arias...

***Aupa Etxebeste!* filmeko protagonistetako bat izan zinen. Bidea ireki zuen film horrek pelikula euskaldunak zinean estreinatzeko?**

Ez dakit bidea oraindik ere zabalik dagoen. Filma egitea abentura handia da, eta euskaraz egitea, are gehiago. *Aupa*

Etxebeste! filma txukun atera zen eta lagungarria izan zen. Baina pauso bat baino ez zen izan. Bidean gaude, eta oraindik lan handia dugu egiteko.

Baduzue aktoreok Euskal Herrian bizirauteko aukerarik, edo Madrilera joan behar duzue derrigorrez?

Madril beste lan-aukera bat da, oso handia, ekoizpen asko egiten direlako bertan. Baina bakoitzak erabaki behar du zer egin.

***Goenkale* saioan hartzen duzu parte. Noiz arte emango dute telesaioa? Zertan datza haren arrakasta?**

Ez dakit. Aurten ere osasuntsu dabil, ikusleek telesaioa ikusten jarraitzen dutelako. Auskalo etorkizunean zer gertutako den: krisia, politika, nolako telebista mota egin nahi duten agintariekin.... Badira baldintza asko. Arrakasta ez da ustekabe handia, Euskal Telebistak *Goenkale* bezalako produktu bakarra ematen duelako. Eta euskal ikusleei, beste herrietakoei gertatzen zaien moduan, foiletoak gustatzen zaizkie.



“Euskaraz lan egiten dudanean, zerbait gehiago egiten nabilela uste dut, aitzindari sentitzen naiz”

“Eszenatokian giroak sortzeko ahalmena du musikak. Askotan musika hitzak baino indartsuagoa da”

“Bai, alemaniarrek *laukituak* dira”

IGONE REGIDOR | Turismoan diplomatua eta Itzulpengintzan lizentziatua



Bizitza osoa darama Igone Regidorrek ikasten. Hogeita bost urteko lezamarrak karrera bi egin ditu eta lau hizkuntza dakizki (alemana, ingelesa, gaztelania eta euskara). Gainera urte bi eman ditu Alemanian lanean, eta gaur egun Castellótik dabil masterra egiten. Auskalo etorkizunak zer ekarriko dion!

a: I.R.

Zergatik Turismoa eta Itzulpengintza? Elkarrekin zerikusi gutxi dutela ematen du hasiera batean...

Batxilergoa amaitu ondoren, ez nekien zer egin. Betidanik hizkuntzak izan ditut gogoko, eta Turismoa aukeratu nuen azkenean, hizkuntzez gain, hainbat gauza ikasten direlako: ekonomia, harremana bezerekin, enpresen jarduera, geografia... Gero beste zerbait ikastea erabaki nuen, Itzulpengintza.

Zelan aterata zen Alemaniara joateko aukera?

Bost urtean hizkuntza ikasi ondoren, Alemaniara joatea nahitaezkoa zen. Beka eskatu, onartu ninduten eta hiritxo batera joan nintzen, Düsseldorfetik gertu. Urte bi eman ditut Alemanian. Lehenengoan, gaztelania eskola eman nuen institutu batean. Bertako irakasleak zein ikasleak oso isilak ziren. Bigarren urtea hobea izan zen. Beste hiri batean egon nintzen, eta han jende gehiago zegoen. Bizimodua alaiagoa zen, irakasleak eta ikasleak askoz hurbilagoak zirelako. Haietako batzuekin ere harremana nuen klasetik kanpo.

Alemaniarrek nahiko “laukituak” direla diote. Zelan moldatu zinen haiekin?

Nahiko zaila izan zen. Egia da, alemaniarrek “laukituak” dira: ordutegiak finkatzeko modua, bilerak antolatzeko era, bidaiak, azterketak... Ikaragarria! Behin, idatzia idatzi eta sinatu behar izan nuen lankideekin batzar batean parte hartu ahal izateko. Oso ezberdinak gara. Arratsaldeko seiatarako, denda gehienak itxita. Eta hortik aurrera ez dago ezer egitearik. Ordu nahiko igaro ditut etxean.

Zer da gehien gustatzen zaizuna Alemaniatik? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana kaleetako segurtasuna, trenbide-sarea eta Gabonetako merkatuak dira. Gauean ardurarik gabe ibili zaitezke bakarrik, eta neguan, hotz handia dagoenean, merkatuak topaguneak dira. Gutxien gustatzen zaidana, zalantzarik gabe, jateko ohitura da! Alemaniako janari tipiko asko goxo daude, baina haiek bazkari handi eta bero bakarria egiten dute egunero, eta normalean, gauean. Eguerdian, aldiz, ogitarteko txiki bat baino ez. Janariaren ordutegia kaos handia izan zen Alemanian igaro nituen hilabeteetan.

BIDE-GORRI
CAFE-BAR
Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8.00etatik aurrera
Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Tel.: 94 452 26 75

ERREKA
JAT
ETXEA
Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak
Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urte 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontuak doan
-Especialitateak
umeak



Dena dela, zelan baloratuko zenuke esperientzia orokorrean?

Oso ona. Ez naiz damutzen. Batzuetan zaila egiten da, noski. Baina esperientzia orokorrean hartuta, edonori gomen datzen diot.

Alemanian utzi eta orain Castellón zaude, masterra ikasten...

Ez dut bizitza osoa liburuak itzultzen eman nahi. Nahiago dut lokalizazioa, hau da, testu bat itzultzean, aspektu linguistikoek gain lurralde bakoitzari dagokion kultura kontuan izan, eta testua ezaugarri horietara moldatu. Itzulpengintza mota honek sortze-prozesu bat dakar berarekin, eta hori da, hain zuzen ere, gehien gustatzen zaidana. Eta horretarako nago Castellón. Gustura nabil hemen: unibertsitatea ikaragarria da, pila bat aktibitate antolatzen dira, eta giro atsegina dago orokorrean.

Alemanian lanean ibili zara; Castellón, ikasten. Zein bizitza duzu nahia-go: ikaslearena ala langilearena?

Ez dute zerikusirik! Alemanian soldata finkoa nuen, erantzukizuna ez zen hain handia, astero hiru egun libre nituen, eta lan orduetatik kanpo egin beharrekoa gutxiagoa eta askoz errazagoa zen. Estresa sortzen zidan bakarria hizkuntza zen. Aurtengo panoramak tentsioan nauka egunero. Lanordua ez dira batere finkoak, klasetik kanpo lan asko egin behar da eta. Ez dakit zein dudan nahiago!

Etxekoak eta lagunak faltan botako dituzula suposatzen dugu...

*"Janarien ordutegia
kaos handia izan zen
Alemanian igaro
nuen garaian"*

Bai, familia eta lagunak asko botatzen dira faltan, batez ere lehenengo urtean: lehenengo aldiz atzerrian, bakarrik eta urrun... Gabonetan etxera etorri nintzeanean, ez nuen hara bueltatu nahi.

Masterra amaitu ostean, zer egin-go duzu?

Nork daki! Masterra amaitzeko oraindik urtebete falta da. Masterrean praktikak egingo ditut; beraz, baliteke enpresan geratzea eta zuzenean lanean hastea. Honela ez bada, lana bilatzen hasiko naiz. Aukera izatekotan, lokalizazioaren alorrean lan egitea gustatuko litzaidake, webguneak eta programak itzultzea. Hala ere, aurtun beste hainbat gauza ikasi ditugu Itzulpengintzaren inguruan, bideojokoak nola itzuli edota liburuak inprentara eramateko nola maketatu, esate baterako. Arlo hauek ez ditut baztertzen. Eta hemen ezer ez badut topatzen, agian Alemaniara itzuliko naiz. Han, egoera hemengo baino askoz hobea da. Nire etorkizuna airean dago oraindik.

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Consulting Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentia
Allianz
609 473 746

Mixolner, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia

T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

KARATEGIA + URDAITEGIA

VICTOR
ARTISANAL ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
bistorra, solomoak...

Plater aurrekoizmatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia

94 453 16 17

IRATXO
gozotegia

Mikel Zarate, 2 - S. Lonja
Sondika, 48150

94 445 89 19



kultura eta euskararen topagunea

Bazkideak Baserri Antzokiaren zutabea
Egin zaitez bazkide!

"Motibazio handiagoa dugu langileok"

LANDATXUETA JATETXEA | Monica Diana Diez eta Segismundo Fraile



Euskadin, 273 establezimenduk badute Q Kalitate Turistikoaren ziurtagiria, turismo arloko enpresen zerbitzua, instalazioak eta kudeaketa ziurtatzen dituen. Landatxueta Loiuko jatetxea harro dago horietako bat izateaz.

Zergatik egin sistema honen alde?

Bereizgarriak halako prestigioa ematen die establezimenduei, eta kontsumitzaileek gudan konfiantza handiagoa izatea dakar. Guk gure zerbitzuetan eta eskaintzan sinesten dugu, baina bezeroak informazio zabala du gaur egun, eta bereizgarri mota hauek bermea dira haien artean.

Nolako abantailak eta hobekuntzak ekarri dizkizue Q ziurtagiriak?

Horiek batez ere barne-kudeaketari dagozkion gaietan nabaritu ditugu. Langileon arteko komunikazioa arinagoa da, eta, gainera, Q-a lortzeko, guztiok gogor lan egin dugunez, oso harro gaude. Horrek gehiago elkartu gaitu. Bestetik, jatetxearen irudian ere eduki du eragina. Ziurtagiria eskuratzeko, oso urrats zehatzei jarraitu behar zaie, eta orduan konturatu zara enpresan badaudela alderdi batzuk hobeto daitezkeenak.

Eta bezeroengan eragin zuzena eduki duten hobekuntzak?

Beste enpresa batzuek bezala, helburuak ditugu, eta, Q-ari esker, datak ezartzen

ikasi dugu. Hau da, gure helburuek jadanik badute hasiera eta amaierako data. Bezeroaren asetasunean eragina izan duten helburuen artean hauek dira aipatzekoak: umeentzako jolasgunea eta WIFI konektzioa.

Kalitate-ziurtagiriarekin lan egiteko aholkua emango zeniekete beste enpresariei?

Bai, enpresa-ikuspuntutik oso positiboa delako. Lagungarria da establezimendua sustatzeko, eta langileek motibazio handiagoa dute taldean aritzeko. Q-a izateak poztasun handia ematen du, hura lortzeko egin den esfortzuagatik ez ezik, hura mantentzeko egin behar den esfortzuagatik ere.

Q Turistikoaren kalitate-prozesuak enpresa posizio lehiakorragoan egotea dakar?

Zalantza barik. Lehen esan bezala, ezaugarriak prestigioa eta fidagarritasuna dakartza.

Zeintzuk dira Q-aren kudeaketa-prozesuan landutako edo ezarritako eskumen garrantzitsuenak?

Asko izan dira. Guk egoki hornituta dauden instalazioak ditugu, eta ohitura dugu ezustekoei konponbidea emateko. Eztei-oturuntzak ospatzen dira gurean, eta horrek behartzen gaitu zerbitzuetan kalitateari eusteko. Era berean, haien ezkontzan ezustekorik gertatuko ez den ziurtasuna helarazi behar diegu senar-emaztegaiei; eta halakorik gertatuz gero, gaitasuna dugula ondorioak arintzeko.

Zuen negozioan kalitatearen kultura sustatzeko, neurri berriak hartzeko asmorik baduzue?

Ostalaritza etengabeko bilakaeran dabilen sektorea da, eta gu ere bagabiltza murgilduta berrikuntzak eta hobekuntzak nagusi diren etengabeko prozesuan. Hobe zintasuna dugu helburutzat, eta hori dela-eta, besteak beste, instalazio berriak atondu ditugu eta bezeroekiko harremana hobetu dugu... gure maila ezin hobea bazen ere.



Eusko Jaurlaritzak eta Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak, Euskalitekin lankidetzan, bere negozioa lehiakorrago izateko beharrezkoak diren tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, programa hauen bitartez:

–Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen "profesionalizazioa" eta jomuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso-diploma duten 494 establezimendu daude.

–Q Kalitate Turistikoaren Programa: bezeroen itxaropenak betetzea bermatzen duen programa. Euskadin, 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q bereizgarria.

–EFQM Bikaintasun Eredua: erakundeek, kalitate-mailari esker, bikaintasuna lortzea proposatzen dien programa. Euskadin, 14 establezimendu daude eredu honetan.

Ezarri Q Kalitate Turistikoaren ziurtagiria zure establezimenduan!

94 607 75 86

94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net

www.euskalit.net



“Ardoa edan egiten nuen lehen; orain, bizi egiten dut”

IÑAKI SUAREZ | sommelierra

Iñaki Suárez sommelierra da, eta maite du bere ogibidea. Pasioz hitz egiten du ardoaz eta, oro har, gastronomiaz, baina baita gure baserritarrez eta gure lurreko produktuez ere. Iñaki oso gustura bizi da Larrabetzun, baina Bilbon, bere jaio-terrian, egiten du lan. Han proiektu berria jarri du martxan AIKOR! aldizkariko kolaboratzaile zintzoak: Patxi Larrocha.

t: Gaizka Eguskiza

Zergatik egin zinen sommelier?

Gaztea nintzela, Zuzenbidea ikasten hasi nintzen, baina ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Ni betidanik izan naiz oso kurioa, eta interes handia izan dut gastronomian. Horregatik, enologia ikastaroan eman nuen izena. Han oso gustura sentitu nintzen, eta hori egin nahi nuela konturatu nintzen. Gainera, Michel Vega sukaldari eta gastronomo handiarekin egin nuen topo, eta nire zaintzailea izan zen handik aurrera. Berak animatu ninduen Euskadiko Sommelierren Elkartearekin harremanetan jartzera. Eta eurekin hasi nintzen ikasten eta entrenatzen.

Zer da sommelier izatea? Zer egin duzue?

Askok uste dute sommeliergintza ardoa edatean datzala, baina ez da egia. Guk ez dugu ardorik edaten! Gainera, gure esparrua ez da ardoa bakarrik, gastronomia zentzu zabalean baizik: olioak, kafea, tabakoa, likoreak.... Batzuen ustez, sommelierrok XVI. mendeko kopariengandik gatz: haiek upelategia kudeatzeaz gain, sukaldetik ateratzen zena ere menderatzen zuten. Hala ere, gehienek uste dute Frantziatik datorrela ogibidea. Sommelierak aditua izan behar du jaten eta edaten dugun guztian. Greziar klasikoen *anfitrión* hitzari ematen zioten zentzua gustatzen zait neuri: sommelierrok etxean dugun onena ematen diogu gurera helitzen denari. Horrela, bisita hori une berezia bihurtzen dugu. Gauzak gauzak baino



ez dira, baina, emozioz betetzen badituzu, magia bihurtzen dira. Eta hau da erronka. Sukaldariak janaria prestatzen dute, baina hori sukaldetik ateratzen den momentutik bertatik geuk hartzen dugu aurkezteko ardura. Gu gara sukaldari eta bezeroen arteko bitartekaria, eta sentsazioak emozio bihurtzen ditugu.

Gastronomia oso zabala da. Zein atal gustatzen zaizu gehien?

Ardoak hartzen dit denbora gehien. Ezin ditut ardo guztiak ezagutu, baina ezagutu egin beharko nituzkeela sentitzen dut batzuetan. Horregatik, orduak eta orduak ematen ditut ikertzen eta ikasten. Nire pasioa gauza berriak dastatzea da, eta pribilegiatuta sentitzen naiz: aukera izan dut ardorik onenak dastatzeko, usatiegi onenak bisitatzeko eta enologo

“Guztiok izan gaitezke sommelierak, guztiok ditugulako dastamena eta usaimena”

onenekin egoteko. Baina ez pentsa, Lermako artzain batek eskainitako ardoa edaten ere oso pozik ibiltzen naiz. Oro har, lurak ematen duena interesatzen zait.

Nolako ezaugarriak izan behar ditu sommelierak?

Guztiok izan gaitezke sommelierak, guztiok ditugulako dastamena eta usaimena; bakoitzak, bere neurrian. Gaur egun, batez ere ikusmena eta entzumena erabiltzen ditugu, eta oinarritzko instintuak, ordea, baztertu egiten ditugu. Estimuluz inguratuta gaude, eta gogor entrenatu behar da estimuluak antzemateko, bai ikasiz, bai dastatuz. Ardoa ezagutzeko, ahaztu egin behar ditugu prezioa, marka, botila.... Hizkuntza propioa du, eta hainbat ezaugarriaren arabera, ardoak berak esaten digu zer den eta nondik datorren. Ardora hurbiltzeko joera baduzu, askoz gehiago gozatuko duzu.

Duela urte batzuk (2005ean eta 2006an) Sommelierren Euskadiko Txapelketa irabazi zenuen....

Esperientzia itzela izan zen, baina oso gogorra ere bai. Sommeliergintza mota bi daude: jatetxeetako eta txapelketetako.

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

Lurrari lotuta

Iñaki Bilbokoa da, Masustegi auzokoa. Bere familia, han ohikoa den moduan, Galiziakoa da. Iñakiren jatorria, beraz, "herriari eta lurrari" lotuta dago. "Horregatik erabaki genuen Larrabetzura joatea bizitzera. Eta hor bizi garenez eta herria maite dugunez, eguneroko bizimoduan inplikatzeko gara. Esate baterako, Gupide elkarte-kidea naiz. Guk geure lur aberatsak ematen dizkigun produktu naturalak aldarrikatzen ditugu, baita baserriar jakintsu eta trebeen lana ere. Balioa eman behar diegu geure produktuei, baina ez geureak direlako, baizik eta onak direlako. Zergatik hartuko ditut Peruko sagarrak, hemen, Txorierrin, zortzi sagar mota badituz? Geure produktuez harro ibili behar dugu".

Eta produktu horiek bere jatetxean ere dastatu ahal dira. Duela 14 urte, Azak jatetxea ireki zuten Bilbon Iñakik eta José Antonio Vilela bere betiko bazkideak. "Janaria goxoa eta osasuntsua eskaintzen genuen. Garai hartan, Euskal Herriko lehenengo jatetxe biologikoa (ez begetarianoa) izan zen, Estatuko bigarrena. Orain badaude produktu biologikoak lortzeko bideak, baina garai hartan ez zegoen ezer. Esate baterako, arrautzak erosteko, Azpeitira joaten nintzen astero-astero neure kotxean".

Dena dela, jatetxea itxi egin zuten, eta proiektu berriak hartu dio lekukoa: Patxi Larrocha. "Patxi Larrocha, XIV. mendeko itsasgizon bizkaitarra da. Patxi ausarta da, eta maite du gastronomia. Gure *alter ego* da, baita gurekin lan egiten dutenena ere: Larrabetzuko baserriarrak, esate baterako". Iñakiren esanetan, jatetxe hutsa baino

gehiago, proiektu zabala da eurena. "Egitasmo txikia da, baina sinergiak sorrarazi nahi ditugu beste egitasmo txikiekin batera. Esate baterako, guk egindako ardoa aterako dugu urtarri-lerako". Ez da izango egitasmo bakarra, eta ziurrenik Patxi Larrocharen abenturaren berri izango dugu etorkizunean.

Baina Patxi Larrocha jatetxea ere bada, oso esparru zabala eta askotarikoa, hain zuzen ere. Jatetxea txokotan dago banatuta eta han edozein ospakizun edo ekitaldi egiteko aukera dago: dastatzeak, ikastaroak, senideen arteko bazkariak, enpresa-afariak... Edarrei eta janariei dagokienez ere, eskaintza oparoa dago: kafea, infusioak, garagardoak, ardoa, egunko menua, menu bereziak, ogitar-tekoak, entsaladak...



José Antonio eta Iñaki bazkideak dira

"Ardoaz gain, gure esparrua gastronomia da, oro har: olioak, kafea, tabakoa, likoreak..."

"Musika bezala, momentuaren arabera aukeratu behar da ardoa"

"Gertu-gertu ditugu itzelezko ardoak. Txorierrikoak, esate baterako"

Ezberdinak dira eta bakoitzak bere lana eskatzen du. Txapelketetan parte hartze-ko, gogor entrenatu behar da. Alde bate-tik, ikasi behar dira jatorriak, mota ezber-dinak, ezaugarriak, gauzak zelan zerbitza-tu... Proba gogorre egin behar diegu aurre: dastatzeitsuak, ingelesez edo fran-tsesez zerbitzatu... Eta gainera, antzokie-tan egiten dira, jendaurrean.

Argi dago sommeliargintza ogibi-dea baino gehiago pasioa dela zure-tzat...

Sommeliargintzari asko zor diot: ar-doa lehen edan egiten nuen; orain, ardoa bizi egiten dut. Sommelieria izateak lan eta ordu pilo bat eskatzen ditu. Etengabe-ko heziketa da. Neure bidaiak, oporrak... neure bizitza osoa eman diot, eta nire fa-milia ere pasio horren partaide da.

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinao 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

TURREGOITI
JATETXEA
Laurietako etorbidea, 27
48160 Lodu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteturregoiti.com

elekma
LARRAZTEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXOGIAK
Lehenengo markak • Reserbak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Tasari etorbidea, 25-3 N • 48160 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es



heltzen ez bazaizkigu ere, mundu mailan ekoizten da. Dena dela, ez dago urrunera joan beharrik, itzelezko ardoak gertu-gertu ditugu-eta. Txorierrikoak, esate baterako.

Aurreiritzi asko daude ardoen inguruan. Zein da gutxien gustatzen zaizuna?

Batzuek ez dute txakolina ardotzat jotzen, eta horrek izorratu egiten nau. Jarraibide teknikoak lagungarriak dira baldin eta gehiegi ez badakizu, baina ez litzateke arau finkorik izan beharko, mugatu egiten zaituztelako. Adibidez, ardo beltza erosten badugu, 16 gradutan hartzea gomendatzen digute botilan. Baina zer gertatzen da kanpoan bero edo hotz itzela badago? Eta zergatik ezin da ardo beltza arrainarekin jan, edo ardo zuria, haragiarekin? Ardo, arrain eta haragi motaren arabera, osagaien elkartzea goxoa izan daiteke. Aurreiritziez gain, usadio asko ere izaten dira. Batzuek koilara jartzen dute xanpain botiletan irekitzen dituztenean. Horrek ez du ezertarako balio, baina ohitura polita eta hunkigarria da. Adibide asko daude.

Zein da gehien gustatzen zaizun ardoa?

Hainbat eta hainbat ardo etortzen zaizkit burura... Ardoa maite dut eta ez dakit zer esan. Musikari gertatzen zaion moduan, momentuaren arabera aukeratu behar da ardoa. Azken bolada honetan Perigorden (Frantzia) ibili naiz eta hango baserritar batzuek kooperatiba txiki bat sortu dute, ardoa ekoizteko. Ardo zoragarriak dira. Larrabetzu ematen du, lur-sailak txikiak baitira. Hunkituta etorri naiz.

Bidaia aipatu duzu. Askotan joaten zara kanpora?

Bidaiatzea neure ogibideak ematen didan beste opari bat da. Bazkideak barre egiten du eta esaten dit: "Hau lan gogorra Toskanara joatea!". Ardo-ustiapenak bisitatzen ditugu noizbait, bertan zelan lan egiten duten eta nolako ardoak egiten dituzten ikustatzeko. Primeran pasatzen dugu, baina hori da ezagutzeko erarik onena. Munduan zehar ibiliak gara: Toskana, Bordele.... Frantzian zaindu egiten dituzte euren produktuak, eta hori belau-naldiz belaualdi helarazten dute. Batez ere, Europan ibili gara, baina kanpora joatea gustatuko litzaidake: Txile, Estatu Batuak, Zeelanda Berria.... Ardo guztiak



Hemen heziketa lana da



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbidet Heziketa eta Sagarren Irakasgintzako Ikastetxea

Uztzagatza Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa

BUSO INJENIERITZA **GOBIERNO VASCO**

Ureko Q
kalitate-kudeaketaren erakle serie
lortzen duen LHko
Bizkaiko lehenengo ikastetxea

Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri

ATE IREKIEN JARDUNALDIA
Ekainaren 3an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Diseinua fabrikazioa mekanikoa (2.000 ordu)
- Diseinua fabrikazioa mekanikoa Goi maila (2.000 ordu)
- Produzioaren programazioa Goi maila (2.000 ordu)

KIMIKA

- Ingurumen-kimika Goi maila (1.400 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak Goi maila (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta informatika sistemak Goi maila (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa Goi maila (1.400 ordu)

Batxillergo tekniko eta zientifikoa








"Bi anai pelikulea olerkia da"

Imanol Rayo zuzendariak *Bi anai* filma aurkeztu eban Zinemaldian; aurkeztu eta Zinemira saria lortu. Bernardo Atxagaren eleberrri homonimoan dago oinarrituta, eta pertsonaia nagusietako bat txorierri-tarra dogu. Aitor Koterón Manuel da. Hau Goierriko gazteak zinemarako egin dauan lehenengo beharra izan da. Pelikulea azaroaren 11n estreinau zan aretoetan.

AITOR KOTERÓN | aktorea eta produktorea



t/a: Itxaso Marina

Zelan esperientzia?

Produktzino-beharretan nabil gaur egun, eta aktore moduan orain dala lau urte egin neban azken beharra, antzerkian. Lagun batek euki eban filmearen castingaren barri, eta paper baterako profil zehatz bateko aktorea behar ebela jakin eban. Nire izena emon eban eta probak egiteko deitu eusten. Papera neuri emotea erabagi zan azkenean. Pentsa eizue, dana bat-batean izan da, esperientzia itzela: zineman egin dot debuta paper protagonista bategaz, Zinemaldira joan gara, eta, gainera, Zinemira saria lortu dogu. Bestetik, aurrekontu gitxiko proiektuetan gertatu ohi dan moduan, familiako giroa sortu zan filmazioan eta

"Danielena edozein aktorek gustura hartuko eban papera da, harek dakarren erronkeagaitik"

oso gustura ibili nintzan han. Produktzio-etxeagaz izandako harremana be hamarrekoa izan da.

Nor da Daniel?

Adimen urriko gaztea da, baina baka-rrik gauza batzuetarako; gai dalako bere instintuak eta sentimenduak aurrera aterateko. Halan, jenteak ez dau tuntuntzat;

kontua euki behar da beragaz. Instintiboki mugiten da eta pisu handia dau filmean. Arazo gehienak bere inguruan sortzen dira. Ez dau barbarik egiten, baina oso gauza indartsuak egiten ditu. Alde batetik, pertsonaia bera indartsua dalako; eta bestetik, berba bat be bota barik, denpora gitxitan gauza asko esaten ditualako. Dana dala, Daniel nor dan nik azaldu beharrean, hobe da zeuek zinemara joan eta bertan deskubritzea.

Paper gatxa, beraz.

Paper guztiak dira gatxak. Danielena edozein aktorek gustura hartuko eban papera da, harek dakarren erronkeagaitik, eta kontzeptuaren indarragaitik: oso pertsonaia berezia da, ez dau testurik, eta, pelikulea bera moduan, oso lineala da. Zailtasunak mugak jarten deusueza-

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA LOTERIA PRIMITIBOA 1-X-2 SARTZARRA EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO LOTEREN ENKESERBAK ZERBITZUA, ENPRESENTAT, TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONA/TAC: 94 455 64 87

LEJARRENE JÄTETXEÄ
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • Tf: 94 455 65 48

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAI)

nean datoz, baina hori edozein papera-
gaz gertatzen da.

Alde handia dago liburua eta peli- kulearen artean?

Liburua esplizituagoa da, beharbada,
eta pelikulan gehiago erabilten da intsi-
nuazioa. Nire ustetan, pelikulea ikustea
olerkia ikustea da; gehiago oraindik, kriti-
kari batek euskal zinemagintzaren jaiotza
dala esan dau. Baina nik ez deusuet kon-
tauko zer dan. Atxaga maite dogun idaz-
lea da, Txorierrin zein Euskal Herrian, eta
uste dot pelikulea ikustea merezi dauala.

Pozik dago emaitzeagaz?

Oso harreman estua egon da Atxaga
eta Rayoren artean. Rayok hiru aldiz idatzi
dau gidoia eta Atxagak jarraipena egin
deutso prozesuari. Filmazioan egoteko
aukerea be euki dau, eta gardentasun
handia egon da alde horretatik. Emaitzea
ikusteko gogo handiz ibili da, ea peliku-
lea gidoiagazko zintzoa dan. Eta nik uste
dot zintzotasuna ikusi dauala, gustau
jakolako. Egia esan, guztiok pozik egote-
ko moduko pelikulea da.

Imanol Rayoren opera prima da, zelan moldatu zara zuzendariagaz?

Oso ondo. Rayok argi euki dau hasie-
ra-hasieratik filmea, eta halan helarazo
deusku bertan parte hartu dogun guztioi.
Filmazioaren azken hilebeteetan euki
dauan erantzukizuna oso handia izan da.
Hori oso estresagarria da eta barrutik ero-
aten da. Halanda be, oso jarrera ona eta
zintzoa euki dau gurekiko.

Emaitza estreinaldiaren egunean bertan ikusi zenduen aktoreek.

Egia esan, ni prentsarako emonaldira
joan nintzan, estreinaldira joan baino
lehen. Eta nahiko hotz joan nintzan, gai-
nera. Pelikulak eta han egindako beha-
rrak ekarriko eustezan emozinoak, onera-
ko zein txarrerako, alde zurretik bizi gura
nituan, eta gero, estreinaldira nasaia
joan, pelikulaz disfrutau.

Eta zelan ikusi dozu zure burua pantaila handian?

Arraro, baina sentidu positiboan. Har-
tualdi asko grabau genduzan, nire ustez
politik ziranak, baina zuzendariak gero
erabili ez dituanak. Azken baten pelikulea
berarena da, eta berak hartu behar ditu
erabagiak. Nik zorionak emon deusadaz,
oso behar ona egin daualako. Izan be,
baztertu dituan hartualdietariko asko
esplizituagoak badira be, horreek ez era-
biltea erabagi dau, eta pelikulearen
mamina intsinuazioaren bitartez transmi-
tidu. Eta hasiera-hasieratik hain argi eban
helburu hori lortu egin dau. Nire beharra-
ri jagokonez, pelikulearen osagarrietako

bat dala uste dot, eta emaitza taldeka
egindako beharren ondorioa dala.

Zinemira saria jaso dozue. Pozte- koa.

Produktzinorik onenari emoten jakon
saria da, baina epaimahaiak pelikulea
bere osotasunean balorau dauala uste
dot. Ramon Agirre aktoreak oso ondo
azaldu eban: hau pelikula erradikala da.
Ez gagozalako halako zinema ikustera
ohituta. Danak dau sentidua, baina plano
estatikoek eta luzeek aukerea emongo
deuskue imajinazioa askatu eta geure
ondorioak aterateko.



Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz

Parte-hartzailea eta euskaraz!

Euskerearen Eguna abenduaren 3an da, eta haren hariko ekimenak egun horren aurreko asteburuan antolatzeke ohiturea dago gurean. Baina, oraingo honetan, Txorierriko Mankomunidadeak Larrabetzuko eragile eta taldeen proposamenak jaso ostean, abenduaren 3aren inguruan be zerbait antolatu behar zala atera dau ondorio. Beraz, Euskeraren Eguna aurten luze joko dau Txorierri, eta herritarrok aukera-sorta zabala eukiko dogu, giro euskaldunean murgildu eta hizkuntzaren normalizaziorantz beste pausu bat emoteko.

Euskera Zerbitzutik adierazotakoaren arabera, oso parte-hartze eta gogo handia egon da ekitaldiak proposatzeko orduan. Horregaitik, oso egitarau itxuroso eta egokia antolatu da, era askotariko ekimenak dituana eta herritar guztien gustukoa izango dana.

Euskerearen jai erraldoiari Euskal jola-

Euskerearen Eguna Larrabetzun ospatuko dogu aurten. Ekimena nobedadez beteta etorriko jaku, asteburu bitan zehar herritar guztiengan pentsautako ekitaldiz disfrutatzeko aukerea eukiko dogulako. Gainera, ekitaldiok barri-barriak eta erabat parte-hartzaileak izango dira.

sen Txapelketeak emongo deutso hasiera, azaroaren 26an. Ideia hau da: herri bakotzeko euskera alkarteetatik talde bat osatzea, bost talde hain zuzen be, gero sokatiran, txingetan eta abarreko kirol-tan onena nor dan erakusteko. Hitzordua arratsaldeko 6etan izango da frontoian. Halanda be, ekimena lehia baino askoz gehiago izango da, harek, gainontzeko ekitaldiek moduan, giroa sortu eta txorierriarron arteko harremana sendotzea daualako helburu. Bestetik, Taberna Ibiltaria nahitaezko bihurtu da hango eta

hemengo jaietan. Euren ahotsak eta soinuak, baita jarratzaile sutsuenak be, iluntzeko 8etatik aurrera egongo dira entzungai herriko kale eta tabernetan.

Berbalagun taldeak halan proposatuta, sendabelar ibiltaldia egingo da azaroaren 27an, goizeko 10etatik hasita. Aditu baten azalpenak entzun ostean, larren artean ibiliko dira Larrabetzu inguruan dagozan bedarrak aztertzen, adituak hareek zertarako balio daben azaltzen deustsen bitartean. Asteburuari amaiera emoteko, arrastiko 6etan Kanpanolue taldeak haurrentzako berbenea eskainiko dau arratsaldean, frontoian.

Berba zaharrak

Euskal kulturearen transmisinoa bermatuta dogu? Galderari abenduaren 1ean saiaturiko da erantzuna emoten, Anguleri Kultur Etxean iluntzeko 8etan egongo dan mahai-inguru baten. Han honeek hartuko dabe parte: Lorea Agirre,

*Euskaldunon
arteko harremana
sendotzea be bada
ekimenek dabezan
helburuetariko bat*



MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 10-8 mabea
48100 Berio, Bizkaia
T.: 94 454 82 93 - Faxa: 94 454 50 63

Gorka García Llamosas
608 16 76 18
gorkiguay@hotmail.com


Txakur eta katuentzako pentsua
Prezio onean
Ettxera eramaten dizugu

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 34 29 56

HUHEZIKo irakaslea eta Sorguneak taldeko kidea; Paul Bilbao, Kontseiluako presidentea; eta Mitxelko Uranga, filosofoa. Rafa Ruedak eta Estankonak musikea jarriko deusie hurrengo eguneko gauari; barikuko gauari, hain zuzen be. Kontzertua 23:00etan emongo dabe Hori Bai gaztetxean. Eta zapatarako, ekitaldi bi antolatu dira arratsaldean: Kukai dantza konpainiaren emonaldia, frontoian; eta Berba zaharren Txapelketea, Gure Etxean. Azken ekimen honen bitartez, herrietan galtzeaz dagozan berbeak eta esaera zaharrak ezagutu eta hareek berreskuratut gura da. Adin eta gustu guztiei zuzendutako ekimenak ekarriko deuskuz Euskerearen Eguna. Eta aitatu beharra dago, eguraldi ona izanez gero, frontoian egitekoak diran ekimen batzuk, herriko plazara eroango dirala (euskal jolasak kasu).

Gatxa da helburu bakar bat esatea, Euskeraren Eguna helburu asko ditualako, bata bestea bezain inportantea: euskerea erabiltea eta gitxieneko kontzientzia sortzea, hizkuntzea egun horretan ez

ezik gainontzeko egunetan be erabilteko; giroa sortzea euskaldunen eta, euskeraz ez jakin arren, euskaldun sentitzen diranen artean... "Horren haritik, herri ezberdinetako jentea batu eta horreek alkar ezagutu daitezala be bada oso garrantzitsua. Ekintzak atxakia izan daitekezalako, euren artean lotura bat lortzeko, eta etorkizunari begira gauzak alkarregaz egin ahal izateko", esan dau Laura Martinez euskera teknikariak.



Rafa Rueda

Eskoletan

Orotara herri eskoletako 1.163 umek eta gaztek hartuko dabe parte eurentzat espresuki antolatu diran ekitaldietan. Zirika zirkus taldeak emonaldia eskainiko dau azaroaren 29an, lau urtetik sei urtera bitarteko umeei zuzenduta, eta 10-11 urtekoek *Erregea eta bufoia* lana ikusteko aukerea eukiko dabe hurrengo egunean. "Seigarren mailakoek bertsolaritza eskola jasoten dabe klasean astero, eta ekimen hau eurentzat aproposa dala pentsau dogu. Andoni Egaña bertsolaria eta Ander Lipus aktorea

aritzen dira bertan, eta ha gazteen adinera moldatu dabe". Marsel magoak zazpi urtetik bederatzi urtera bitarteko umeak aho bete hortz itxiko dituan saioa be eskainiko dau abenduaren 2an.

Larrabetzuko eskolako ikasleak zeremonia-maisu ibiliko dira aurten, eta aurkezpena egin beharko dabe saioen aurretik. "Era berean, ikastetxe baktxean, bertsolaritzan dabilzanek bertso bat asmau dabe eta ume guztiek horreek ikasi beharko dabez, aurkezpenen ondoren danek batera abesbete. *Lipdub* bat be grabau da eskola baktxean, eta hareek alkarri pasauko deusie giroa sortzen hasteko".

EDITOLTEA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

EXCAVACIONES AZURMENDI

epetargi@excavaciones.com

MOBILA: 649 102 122
TEL/FAX: 944 554 158

AM
Formación y Traducciones

- Ingelesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitatetako azterketak prestatuta, EOI...
- Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan
- Klaseak irailaren 14an hasiko dira

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaloltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremente 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

On egin

kafetegia

Hamburgesak - otartekosak - sartenekosak
plater konbinatuak - gosariak 7etatik aurrera
pastelak enkarguz

ebaxera eramateko zerbitzua

Airekaldia suzua, 48-behe
48196 Lezama

94 455 63 94

48196 LEZAMA Bizkaia Galtzerria auzoa, 36

S.A.T. LEGU

ERANTZUNEZKORTZA ETA BERRA-LENDATZA

F: 94 455 64 12 T: 94 455 61 08

Inmobiliaria ETORKI

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53 48160 DERIO

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Carnicería Charcutería IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TEL/FAX: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko etortzeagaitik

Gerra bateko proiektzinoak

“Gerra Zibila gogoan” ekitaldia egingo da abenduaren 2an Loiun. Ekitaldi horretan argazki batzuk jarriko dira ikusgai, eta argazkiotan Madrilen, Oviedon eta Bizkaian dagozan gerra aztarnak ikusi ahal izango dira. Hareei buruzko azalpenak emongo dira, eta matxinada frankistaren kakoak eta ondorioak be aztertuko dira. Hitzordua iluntzeko 8etan izango da herriko eleizan.

t: Itxaso Marina / a: Iñaki Olabarrieta

Iñaki Olabarrieta eta Juantxu Bilbao loiuztarrei izugarri gustaten jakez historia eta artea. Hori dala eta, oporretan eta ahal daben guztietan, handik eta he-

mendik ibilteko aprobetxaten dabe. Beti Euskal Herriko eta Estaduko herrien non-dik norakoak ezagutzen, beti ikasten. Azaldu deuskuenaren arabera, behin liburu bi ailegau jakezan eskuetara: *Por los escenarios de la Guerra Civil* eta *La*

maginot cantábrica. Liburuok arretaz irakurri, eta pentsau eben interesgarria izango zala han aitatzen ziran lekuak eta aztarnak bertatik bertara ikustea. Argazki-kamera hartu eta liburuetan azaltzen diran ibilpideak egin ditue; igaz, Madri-



BAR BIDE-BI

Goizeko 5etatik
aurrera zabalik

Zamudio

Aukeratu zurea!

Gosari bereziak

Telefona: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

EGUNEKO MENUAK

ESPEZIALITATEA, TORTILLAK

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

ESTILISTA EVA ARDINES

NESKA-HITILEN ILEAPAINDEGIA

AmAr

Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Urbe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefona: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

len izan ziran, eta aurten, Oviedon. Era berean, zapaturo ibili dira txokorik txoko Bizkaian. Guztira, berrehun argazki batu ditue, eta hareetan nagusi dira gerra lekuak eta bando biek erabilitako bunker eta lubakien hondakinak. "Gaia oso garrantzitsua eta interesgarria da berez. Memoria Historikoa zaindu beharreko zerbait da eta uste dogu ezinbestekoa dala bildutako materiala besteei erakustea eta azaltzea. Hori dala eta, bururatu jakun argazki proiektzino bat egitea; ekarpen xumea da, guk geure historiari egiten deusaguna".

Argazkiak batzea ez da behar erreza izan. Loiuztarren esanetan, bisitautako leku gehienak oso egoera negargarrian dagoz, banaka batzuk (Elgeta eta Audioiko aztarnak) izan ezik. "Salaketa egin gura dogu lerro honeetatik. Lur publikoetan dagozan gehienak, eta lur pribaduetan dagozan batzuk be, erabat itxita dagozako. Sastarak jaun eta jaube dira leku horreetan, eta askotan ingurua garbitzen ibili behar izan dogu argazkiak atera ahal izateko. Penagarria da, gure historiaren zati bat diralako -historia tristea bai, baina geurea-, eta guztiok zaindu beharko gendukez".

Menditik ibili dira, Guadarraman (Madril), Lugonesen (Oviedo), Larrabetsun, Gaztelumendin, Lauroetan, Galdamesen, Gorbeian, Markinan... sasi artean, aztarna bila. "Askotan emoten eban geu gentozala gerratik". Eta argazkiez gainera, hamai-ka bitxikeria ekarri ditue eurakaz batera. "Adibidez, Foru Aldundiaren lurretara sar-

tzen itxi ez euskun zaintzaile haregaz izandako berbak. Edo beste behin, bunker bati argazkia aterateko, Lugones herriko komentu batera joan ginanean. Komentuak lau urte inguru eroiazan itxita, eta komeriak egin behar izan genduzan argazkia atera ahal izateko". Horren guztia- ren barri abenduaren 2an emongo deuskue iluntzeko 8etan Loiuko eleizan.

Balak ikusgai

Argazkiak proiektagailu handi baten erakutsiko ditue, eta irudi bakotzak bere azalpena eukiko dau. Francoren altxeteari be egingo deusie erreposoa eta 36ko gerraren gertakariak azalduko ditue, bando biak zelan osatu ziran, zeintzuk izan ziran gure inguruan egin ziran batailari- rik esanguratsuenak eta beroneen ondorioak, eta zelangoak ziran errepubli- kanuen gerra-azpiegiturak eta zelangoak fronte nazionalenak, besteak beste. "Alderik nabarmenena hau da: errepubli- kanuenak ostenduagoak ziran, ingurura ondo egokituak, gehiegi ez nabarmentze- ko. Frankistenak, barriz, begi bistan ego-

*Madriletik, Oviedotik
eta Bizkaitik ibili dira
materiala batzen; 200
argazki, guztira*



zan, "hemen nago ni" esango balebe mo- duan". Bala bi eta bala-zorro bat be jarriko ditue ikusgai. "Bala-zorroa 1932. urtekoa da eta Txekian egin eben. Bera Gamiz- mendin topau genduan. Balak 1936. urte- koak dira eta Alemanian egin ziran. Bata Lauroetan bertan topau genduan; eta bestea, Gamizmendin". Bestetik, gerra ga- raiko urteetako egunerokotasuna azal- tzen daben argazkiak be ipiniko ditue proiektzinoan, eta herrian eta inguruan gertatuko pasadizuak kontauko ditue. Behar zoragarria, denpora handia eskatu dauena, egin behar izan dabe material hori guztia biltzeko eta informazinoa jasotzeko. "Eta ahal dogun arte jarraituko do- gu dokumentazinoa batzen. Pozgarriena hau izango da: jentea, batez be gazteak, gure ekitaldira hurbiltzea, eta geure histo- ria inoz ez ahaztea".

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak

ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAZTUAK. SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

Tx.: 94 656 85 69
Faxa: 94 656 85 70
kitchensukaldeak@euskalnet.net

Txerlerriko etorbidea, 9
Arteaga eraikina
48160 Derio (Bizkaia)

urel
Psicología Social
Psicología - Pedagogía - Logopedia

645 147 982
Mitxine, 3 behea • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com



Nekazal mund

a: Jon Goikouria

Asfaltoa eta industriguneak apurka-apurka nagusituz joan arren, susterrak baserrian eta lurreen doguz oraindino. Gure artean urtean zehar antolatzen diran nekazaritza azokak horren adibide argia dira. Urrian azokea antolatu eben Lezaman eta Loiu; eta azaroan, Zamudion eta Sondikan. Herriok egun batez erakusleho handiak bilakatu ziran, eta Txorierriko zein Bizkaiko hainbat lekutatik etorritako ekoizleek euren produktuak erakutsi zituen.



uaren erakusleho handia



ETXADI ADMINISTRACION de FINCAS

Jabeen erkidegoak, garajeak eta lokalak ●
Diru-laguntzak lortzeko izapideak: etxaurreak, teiltuak.... ●
Arreta pertsonalizatua ●
Administratzaile kolegiatua ●

San Miguel, 4 - Amorebieta-Etxano | etxadi@gmail.com | Tel.: 94.630.88.65

Garmendia ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesuen Elizko plaza, 5 - Euzkalduna er. 7, 1. dptoa
48001 Bilbo Tel.: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel.: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74



t: Gaizka Eguskiza / a: LMR

Larrabetzu herri nekazaria da. Zala-parta handirik ez da normalean entzuten eta kaleetan ez dabil normalean jendetza handia. Giro baketsua bertan behera gelditzen da jai egunetan, eta haietako bat Larrabetzu Motor Racing elkarteak hiru urtetik hona antolatzen duen auto klasi-koen kontzentrazioa da. Herriko motorzale guztiek egutegian gorritz dute azpimarratuta hitzordu nagusia. Lehenengo urtean 64 kotxe bildu ziren; bigarrenean aurreikuspenak gainditu, eta 113 auto egon ziren ikusgai herriko kaleetan. Aurten abenduaren 18an egingo da, eta oraindik ez dakite zenbat kotxe etorriko diren Larrabetzura.

Betiko moduan, elkartekoek karpa jarriko dute eta bertan indarrak berritzeko aukera izango dute parte-hartzaileek eta bisitariak: tortillak, ogitartekoak, kafea,

Motorzaleen topagunea

LARRABETZU MOTOR RACING

txokolatea eta horrelakoak eskainiko dira. Larrabetzura etortzen diren kotxeak klasi-koak dira, hau da, 25 urte baino gehiago dute oro har, baina batzuk gazteagoak dira, 20 urtekoak edo. Bizkaia mailan, erreferentea da Larrabetzuko kontzentrazioa. "Plentzian egiten dena da onena, baina horren atzean geu gara nagusi-entariakoak. Izan ere, guri helarazten zaizkigun iritziak oso onak dira. Parte-hartzaileak, bisitariak, herrikoak... Guztiak daude oso pozik", dio Jon Andoni Mauleon elkartearen presidenteak. Kotxeak Euskal Herri-rik ez ezik, Santander edo Burgosetik ere etortzen dira.

Elkartearen jardura nagusia auto klasi-koen kontzentrazioa da eta aurten abenduaren 18an egingo dute

Kontzentrazioaren arrakastaren gakoa Larrabetzu herria bera da, Jonen iritziz. "Herrikoek bat egiten dute kontzentrazio-arekin, eta zintotasunez laguntzen digute antolatze lanetan. Gainera, kalean bertan egiten dugu erakusketa eta horrek xarma berezia ekartzen dio kontzentrazioari. Oso giro polita dago herrian. Beste batzuetan, ordea, industriguneetan egiten dira, eta tristeagoak dira". Kontzentrazioan hiru sari banatzen dira: bata auto zaharrenari; beste biak kontzentrazioan bildutakoek (bai elkartekoak, bai parte-hartzaileak, bai bisitariak) ematen dieten gehien gustatzen zaizkien ibilgailuei.

Elkartea, edozeini irekita

Larrabetzu Motor Racing taldea 2009an sortu zen. Lagun batzuek zaletasun bera zuten, motor arlokoa, baina herrian ez zen horren inguruan ezer egiten. Beraz, indarrak batu eta erakundea mar-





txan jartzea erabaki zuten. "Lau bazkide gara elkarteak: Negu García, Antxon Zorrozu, Atarratz García eta laurok". Guztiak gazteak, guztiak mutilak, guztiak larrabetzuarak. "Guk lagun taldea osatzen dugu, baina elkarteak edozeini dago irekita: zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto".

Motorrak ez ezik, motorreko kirolak oro har ere badituzte gustuko elkartekoei: 1 formula, rallyak... Lasterketetara ere joaten dira: Bartzelona, Valentzia, Portugal... Gainera, motorren kontzentrazioa egiten dute Larrabetzun, baina ez da auto klasikoena bezain jendetsua. "Herri bazkaria eta kontzertuak edo bakarrikzketak antolatzen ditugu egun hartan".

Etorkizunari begira, kart-etan ibiltzera joan nahi dute. "Herriko jendeak eskatu egin digu. Autobusez joango gara eta txorieritar guztiei luzatzen diegu gonbitea. Ziurrenik, Gueñesera joango gara, baina Gasteizko zirkuitua ere oso polita da: estalita, solairu bikoa...". Era berean, slalomedo egitea ere gustatuko litzaieke.



"Kotxea hartu eta zirkuitu batean oztopoak gainditu: konoak, giro zailak... Zamudion eta Derion dagoeneko egin dute, eta guk ere nahiko genuke hori egin. Horretarako, leku handia eta baimenak behar dituzu. Eskatu egin ditugu eta zain gaude....". Baina benetako ametsa rallya antolatzea da. "Beste elkarteekin ibili gara harremanetan, baina oso zaila da: errepideak moztu behar dira, segurtasun-neurri asko..."

Segurtasuna seriotasunez hartzen dute eta horren inguruko kontzientzia zabaltzeko hitzaldiak ematen dituzte elkartekoei. "Segurtasuna denon ardura da: gidariona, errespetua elkarri adierazi behar diogulako; eta erakunde publikoena, errepideetako segurtasuna hobetu behar dutelako, segurtasun-hesiak aldatuz adibidez". Eta arin ibili nahi izanez gero, zirkuitura joateko gomendatzen du Jonek. "Motorrean ibiltzea arriskutsua da, nahiz eta zuhurra izan, eta horregatik ibili behar da kontu handiz".



Osasunean inbertitzea



Bataz beste sei-zortzi ordu emoten doguz ohean egunero. Bertan lo egin ez ezik, deskantsau be egiten dogu, eta gure gorputzak eta burmuinak euren onera etorteko aprobetxaten dabe. Beraz, atsedeen-sistema aukeratzea ez da arin egin behar dan gauzea. Ion Otaolea Suit DeLux Arteagako atsedeen-aholkularia da, eta harengana jo dogu, ohe egoia aukeratzeko lagundu deigun.

Ionen esanetan, kontuan hartu behar dogun lehenengo faktorea logelan dogun lekua da, eta ohea lagun batentzat edo birentzat izango dan. "Ohea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto deskantsauko dogu, errazago mobidu ahalko garalako eta bestearen mobimentuak, arnasak... gitxiago igerriko doguzalako". Halan, gomendagarria da 0,90 zentimetrotik 1,05 metrora arteko ohea aukeratzea ume batentzat; 1,20 metrotik 1,35 metrora artekoa, lagun batentzat; eta 1,50 metrotik gorakoa, bikote batentzat. Baina aitatutakoa baino tamainu handiagoko ohea ipinteko aukerarik badogu, askoz hobeto. Somierra aukeratu ondoren, koltxoia eukiko dogu hurrengo zeregin. Lo egiteko ohitura -ahoz gora, alboz, ahoz behera...- erabagigarria izango da horretan. "Aproposena moldagarria eta oso eroso da koltxoia hartzea da, baina, aldi berean, apur bat sendoa dana".

Merkaduak aukera zabala eskaintzen deusku: malgukizko koltxoia, latexekoak, biskoelastikoak, mistoak, HR izenekoak... Zein da onena? "Ezin dogu esan bata bestea baino hobea danik, hori bakotxaren gustuaren arabera da". Argi dagoana hau da: kalidadezko produktua gura badogu, ordaindu egin behar da. "Gitxitan egiten dogu atsedeenaren gaineko hausnarketa.

Bakotxaren ahalmen ekonomikoa ezinbestekoa da, jakina. Baina hori albo batera itxita, askotan ez gagoz atsedeen-sistema on baten truke dirua gastetako prest, eta horretan gastauko gendukena, beste gauza batzuetan gastau gurago dogu. Atsedena oso inportantea da, beharrak, estresak, jarrera ez egokiek... eragindako arazo fisikoak gero eta gehiago dagozalako. Ohe on baten gehiago erlaxauko gara, sakonago egingo dogu lo eta gure gorputza arinago etorriko da bere onera. Eta, adibidez, kirola-

riak bagara, hobeto sentiduko gara eta errendimendu handiagoa izango dogu".

I+G

Atsedena, beraz, ez da gastua, osasunean inbertitzea baizik. Profesional batek gura jo behar dogu aholku bila. Ionek azaldu deuskun moduan, oso onak diran latexeko atsedeen-sistemak badagoz, baita biskoelastikoak be. Koltxoia gorputzari erantzea gus-taten ez jakeneko malgukizkoak dabez aukeratzat, gaur egun zuntz naturalez egiten di-



ranak, gorputzera ederto moldatzen diranak eta oso sentzazio termiko atsegina emoten dabenak. "Sektorean, eta Europa mailan, aitzindariak diran enpresakaz egiten dogu behar. Ikerketan eta garapenean asko inbertitu daben enpresak dira, eta lantaldean medikuak, fisioterapeutak... dabezanak". Bakotxaren gustuaz gainera, adina eta beharrianak be euki behar doguz kontuan koltxoia aukeratzeko orduan. "Atsedena hartzen dogun bitartean, bizkarrak luzatu behar dau eta gu mobidu behar gara. Ohe elastikoa badogu, gehiago luzatuko da gure bizkarra eta gitxiago kostauko jaku mugidutea. Horren haritik, latexezko oheak gomendagarriak dira umeentzat eta edadekoentzat".

Atsedena-sistemea badogu aukeratuta, eta orain burkoagaz jarraitu behar dogu. Hau pertsonalagoa dan beharra da: gogorra edo biguna gustaten jakun, zein altuerakoa gurago dogun, alergia onduoriz ehun bat edo bestea hartu behar dogun... Baina zelaz zaindu behar dogu ohea? Koltxoiari aldian-aldian emon behar jako bueltea, eta ha birau. Halan, koltxoiaren alde ezbardinetan egingo dogu lo eta gure atsedena-sistemea egokiago zahartuko da. Halanda be, koltxoi biskoelastikoa badogu, nahikoa da ha biratzeagaz, koltxoia bi partek osatzen dabelako, goikoa (biskoa dauana) eta behekoa, eta atsedena beheko partea emoten deuskulako.

Joerak

Eta noz aldatu? "Koltxoia 8-10 urtean behin aldatzea gomendagarria da, baina ondo deskantsaten badogu eta gustura bagagoz, urte bi luzatu ahal dogu haren bizitzeta. Bestetik, koltxoigile batzuek 25 urteko bermea emoten dabe ohe nordikoen kasuan. Hiru pieza osatzen daben oheak dira horreek: kanapea, koltxoia eta *topper*-ra. Denporea pasa ahala, *topper*-ra baino ez dogu aldatu beharko, gastauko dan bakarra izango dalako. Beste piezek luzeago iraungo dabe, oso material onez eta iraunkorrez eginda dagozalako".

Joerak nagusi diran munduan bizi gara, eta atsedena merkada be ez da salbuespena. "Biskoelastikoek booma euki eben orain dala urte batzuk, baina latexekoak hasi dira berriro nagusitzen. Edozelan be, modan ipini diranak ohe nordikoak dira". Etorkizunak material, ikerketa eta konponbide barriak ekarriko deuskuz atsedenerako.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13



JOYFUL GOSPEL SINGERS
GOSPEL MUSIKA
New Orleans (EEUU)
Abenduak 16, 20:00
Sarrera 5 €

ANTZERKIA

GABON KONTUK II
DEABRU BELTZAK taldea
Umeen antzerkia
Abenduak 18, 17:00
-12 urte: 3 €
+ 12 urte: 5 €



EL GATO CON BOTAS
(AG) ESTREINALDIA (3D)
Abenduak 2, 19:00
Abenduak 3, 18:00 eta 20:30
Abenduak 4, 17:00 eta 19:30

HAPPY FEET 2
(AG) ESTREINALDIA (3D)
Abenduak 9, 19:00
Abenduak 10, 18:00 eta 20:30
Abenduak 11, 17:00 eta 19:30

VICKY EL VIKINGO Y EL MARTILLO DE THOR
(AG) 3D
Abenduak 17, 18:00

NO HABRA PAZ PARA LOS MALVADOS
(EG - 12) 2D
Abenduak 17, 20:30
Abenduak 18, 19:30

ALVIN Y LAS ARDILLAS 3
(AG) ESTREINALDIA (2D)
Abenduak 23, 19:00
Abenduak 25, 19:30
Abenduak 28, 17:00

ZINEA







2D: 3 € 3D: 4 €

Estreinaldia 2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-zanaren arabera programazioak aldatetaz jasan ditzake



Emakumeak, Zientzia eta Teknologia

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

Urriaren 7an Ada Lovelace-ren Eguna ospatu zen. Ada Lord Byron poetaren alaba izan zen, baina ospakizuna ez dago ahaidetasun horri lotuta, Adaren jarduerari baino. Londresen jaio zen 1815. urtean, eta Historiako lehen programatzaileztzat hartzen da. Izan ere, bera izan zen programazio-hizkuntza batean idatzi zuen lehenengo pertsona. Beraz, programazio informatikoaren ama dugu gaur egun.

Ada Lovelace-ren Egunak helburu hau du: emakumeek Zientzian, Teknologian, Ingeniaritzan eta Matematikan duten profila ezagutzera ematea. Horretarako, animatu egiten du mundu osoko

Desoreka batzuk badaude ere, sexuen arteko berdintasuna dago halako ikasketetan

herritarrek miresten duten emakumeei buruz berba egitera. Gizarteak emakumeak baztertu egin ditu urteetan, eta, ondorioz, bere potentzialaren erdia ere baztertu egin du. Baina badaude emakumeak bazterketa horri aurre egin, eta Zientzia eta Teknologiaren hainbat esparrutan

aitzindariak eta erreferenteak izan direnak: Marie Curie, Rosalind Franklin, Alexandriako Hipatia edo Ada bera, esate baterako.

Eta non gaude gaur egun? Datu batzuk emango ditugu. Unibertsitatean sartzeko 2010. urteko probei dagokienez, mutiletatik %68k egin zuen Zientziak eta Teknologiari lotutako proba; nesketatik, ostera, %52k. Gainditu zutenen tasa kasu bietan antzekoa izan arren, batez besteko nota 7,2 izan zen nesken kasuan; eta 6,8, mutilen kasuan. Nolanahi ere, Unibertsitatean neska gehiago matrikulatzen dira mutilak baino, nahiz eta horiek biztanleriaren erdia izan. Zientzia esperimentalen arloan portzentaje txikiak eta antzekoak topatzen ditugu kasu bietan: halako ikasketetan mutilen %4k eta nesken %5ak ematen du izena. Joerak oso ezberdinak dira osasunari lotutako ikasketetan eta ikasketa teknikoetan. Horrela, nesken %9 osasunaren arloko ikasketetan matrikulatzen den bitartean, mutilen %3k baino ez du egiten. Ikasketa teknikoak, berriz, mutilen %41ek nahiago ditu, eta nesken %14k. Gradu-ondoetan ere neska gehiago daude mutilak baino (2.499 eta 1894), baina karrera teknikoetan mutil gehiagok ematen dute izena.

Beraz, zein da dugun panorama? Profilen arteko desoreka batzuk badaude ere, esan dezakegu berdintasuna dagoela Zientzia eta Teknologiari lotutako ikasketetan. Eta abantailarik izanez gero, hori neskek dutela, gehiago baitira Unibertsitatean eta gradu-ondoetan izena ematen dutenak.

Badira apurtu beharreko aurreiritzi batzuk profilei dagokienez, baina oraingo honetan emandako datu positiboekin lotuko naiz. Azaldutako joera lan munduan islatu behar dugu, baita enpresen zuzendaritza-karguetan ere. Eta hau guztion ardura eta betebeharra da, ezin baitiogu ukatu gure gizartearen erdiari sorzaion errekonozimendua.

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex iharpaindegia
Estetika
Orduetegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

URAS
Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larrabarri, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

Pablo Zamarripa Uraga

Aurpegi bako idazle txorierritarra



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Hamar urteko ordenadore zaharra baino nekatuago gagoz. Ezin topau zentailea Pablo Zamarriparen argazkirik. Haren *Manual del vascófilo* liburuaren hiru garren argitaraldia prestatu gura eta foto-

grafiarik ez. Jo Foru Liburutegira *La Gaceta del Norte* mikrofilmatura eta zidurririk be ez; bisitau Sondika-Asuako argazkilaria, eleiz dokumentuak, etxekoartekoak, eta irudirik ez; idatzi Gasteizko Eleizbarrutiaren Artxibo Historikora, eta aurpegiak ez. Ekina txarra dala, baina ezina txarrago!

Zer egin? Kaxildok dino –h bako umorez- berak baeukala osaba abade bat, aitaren anaia zana, inork ezagutuko ez leukeena, eta haren argazkia sartu lei-keela Pablo Zamarripa dalakoan.

Txantxak txantxa, 1950ean zendu zan idazlearen argazkirik ez daukagu. Zer herri mota ete gara euskaldunok euskereari Iberdrolako torrearen gailurretik gorako laudarioak egin ondoren geure idazleak azazteko? Zer pentsauko geunke 1950ean hildako George Orwell, Cesare Pavese edo Castelaoren argazkirik ez bageunka?

Oso gazterik hasi zan idazten. 20 urte egin barri zala Azkuek zuzentzen eban Euskalzale aldizkarian kazetari ibili zan. Olerki lehiaketa asko irabazi zituan, Ordizian, Donapaleun, Ustaritzen, Bergaran, Donostian egindakoak. Gramatika arloan be lan handia egin eban. 1914an Bilbon argitaratutako *Manual del vascófilo* eta 1915ean eginiko *Gramática Vascongada* hainbestek erabili izan ditu.

Pablo Agustin Jesus Zamarripa Uraga Txorierrikoak ez ete dau merezidu danon artean haren argazki bakan bat aurkitzea? Orain arteko ahalegina ondu baietz!



Tif: 944 478330
www.aisiahoteles.com



Tif: 944 540574
www.pandpderio.com

GOLF GASTRONOMIKOA eskaintza berezia:
relax zikuitua, menu berezia eta green
fee bat, 9 zulotako golf-zelairako.

45€
pertsonako
beza bame



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zer jaso du
sondikoztar
baten lanak?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
–Telefonoz: 94 452 34 47
–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:
Ortu ekologikoa
Irabazlea:
Paul de Prado

Etxeko sukaldaritza

Sagar-tartea

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 8 sagar handi
- 200g azukre
- Alberretxiko-mermeladea
- Hostore-xafla bat
- Gurina eta urina
- Kanela-hautsa (gustukoa bada)
- Ur apur bat

Prestateko erea:

Sagarrak zuritu eta haziak kenduko deutseguz. Sagar horreetako bi xaflatan ebagiko doguz eta gorde egingo doguz. Beste seiak azukre eta ur apur batez jarriko doguz egosten. Biguntzen diranean, atera egingo doguz. Sobran dagoan

ura kendu eta purea egingo dogu. Hotzitzen itxiko dogu. Bestetik, labea 180 gradutan berotuko dogu. Moldea gurinaz igurtzi eta urineztatu egingo dogu. Hostore-xafla moldean zabalduko dogu eta, horretarako, arrabola erabili geinke. Hostore-xaflari zulo txikiak egingo deusaguz labana batez. Labara 20 minutu inguruan sartuko dogu. Handik atara eta epeltzen itxiko dogu.

Sagar-purea hostore-xaflaren gainean botako dogu eta ondo zabalduko dogu. Xaflatan ebagitako sagarrak tartea apaintzeko erabiliko doguz. Mermeladea gainetik botako deutsegu, ondo-ondo zabalduta. Tartea labara sartuko dogu eta 40 minutu inguruan eukiko dogu laban. Eginda dagoanean, labea amatau eta tartea bertan itxiko dogu, epeldu arte. Tartea epel edo hotz mahairatu leiteke eta, gustukoa bada, kanela-haus apur bat bota.



Zerbak, patata eta zanoriagaz

Osagaiak (hiru lagunentzat):

- 8 osto zerba
- 2 patata handi
- 2 azenario
- Kipula bat
- 4 koilarakada oliba orio
- Gatza
- Litro erdi ur

Prestateko erea:


Jarri ura egosten presioko eltzean, gatxagaz. Bitartean, ebaki zerbaren orri maminaren oinarria, eta kendu hariak. Garbitu eta txikitu dana ondo, eta irakiten hasten danean bota dana uretar, Ondoren bota kinpulea txiki-txiki eginda. Zuritu azenarioak eta patatak; txikitu eta bota lapikora.

Jarri estalgia eltzeari eta lurruna urteten hasten danetik, itxi egosten bost minutu. Zerbak, azenarioak eta patatak egositakoan, xukatu eta atera platerera. Platerean, bota koilarakada bat orio birjin gordin mahai-kideko.



 **Ercoreca**
supermerkatuak
Elikaduran adituak

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94


lurrindegia **MAMEN** mertzaria
Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Gehi-ikusiak, orokorrak
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko anisierako garbiketarak
Ikastetxeak
Zabon bilaketa
Besalde Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Azken garaipena. Iban Zaldia / Julen Ribas.
- Augustin chaho 1811-1858. Xabier Zabaltza.
- Kartzelako poemak. Joseba Sarriornandia.
- Gauza guztiak. Rafa Egiguren.
- Zaharrak ez zuen hil nahi. Gaizka Zabarte.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Alarguntsa sikodelikoaren kasu. Anjel Lertxundi.
- Maitagarrien belarrak. Sebastien Perez / Benjamin Lacombe.
- Izar bila zebilen txakurra. Ricardo Gomez / Tesa Gonzalez.
- Haitzuloa. Enric Llunch.

MUSIKA

- Araiatik jaliskora. Joselu anaiak.
- Hemen. Pier Paul Berzaitz.
- Hodeien azpian. Ruper Ordorika.

Sudokua

		6	8	3		7		
	7		1					2
		4					3	
8			7					
			6		3	1		
1				7			4	9
		8	2					
2						6		1

1	8	6	5	9	4	7	3	2
2	7	3	6	1	2	8	4	9
3	4	8	2	1	6	5	3	7
4	9	1	6	5	3	7	8	2
5	2	7	5	1	4	9	6	8
6	3	1	4	2	8	6	9	5
7	5	2	6	3	1	4	9	8
8	6	9	3	7	5	1	4	2
9	8	1	4	9	8	2	5	3
2	5	2	8	4	6	1	9	3
3	7	6	8	3	9	7	1	4
4	8	1	5	2	7	9	6	3

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

POXPOLIN

OPARIAK ETA ARROPA

94 656 72 25

ARALAR, 4
DERIO

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 434 07 98
Fax 94 434 14 12

Mungaiako etorbidea, 25
48100 DERIO

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Iñigo Aranbarriren *Zamaontzia* liburua. Abenduaren 15ean, 20:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

Ikastaroak

Derio

- > Aeromodelismo tailerra. Abenduaren 17an eta 18an, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, udal frontoian. Subyke klubak antolatua.
- > Buru-zapi tailerra. Abenduaren 17an, Jan-tzi Jarauntsi Troupe taldeak antolatua.

Zamudio

- > Zure agenda sortu. Abenduaren 3an, 11:30ean, umeen liburutegian.
- > Genealogia. Abenduaren 17an, 10:00etan, Zamudiotorren.

Ikuskizunak

Derio

- > Kukuke antzerki eskolaren emanaldia. Abenduaren 19an, 18:00etan, Gurea Aretoan.

Zamudio

- > *Ane Monna, Oskola eta Karramarroi*. Abenduaren 3an, 12:00etan, Zamudiotorren. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.

Lezama

- > *La sirenita* ipuin kontalaria. Abenduaren 16an, 18:00etan, liburutegian.

Larrabetzu

- > *Klik klak* umeentzako lana. Azaroaren 25ean, 18:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > *Scanner*, Leire Bilbaoren poesia-emanaldia. Abenduaren 22an, 20:00etan, Hori Baien.

Irteerak

Zamudio

- > Durangoko Azoka. Abenduaren 6an, 09:30ean, Txorierriko etorbideko autobus gerdalekutik.
- > Logroñoko karting. Abenduaren 10ean, Zamudio Racing elkarteak antolatua.

Jaiak

Lezama

- > Turroi Eguna. Abenduaren 11n, Bizkargi mendian. Zorribike taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Euskararen Eguna. Azaroaren 26tik abenduaren 3ra.

Lehiaketak

Lezama

- > Gabonetako postalak. Aurkezteko epea: abenduaren 16ra arte, ludotekan eta liburutegian.

Musika

Zamudio

- > Zamudioko Kamara Korralaren emanaldia. Azaroaren 26an, 20:00etan, elizan.

Lezama

- > Ekidazu, Matsorriak eta Zornotzako abesbatzen emanaldia. Abenduaren 16an, 19:30ean, elizan.

Larrabetzu

- > Gabonetako kontzertua. Abenduaren 22an, 19:00etan, elizan.

Bestelakoak

Derio

- > Gabonetako bingo berezia. Abenduaren 21ean, 19:30ean, Nagusien Etxean.

Zamudio

- > Urte amaierako bazkarirako tiketak. Abenduaren 3an eta 4an, 11:00etatik 13:00etara, Adintsuen Etxean. Bazkaria, 17an.
- > Plater-tiroko saioa. Abenduaren 11n, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.
- > Olentzero. Abenduaren 22an, 18:30ean, ludotekan.

Lezama

- > Liburu azoka. Abenduaren 12tik 16ra, liburutegian.
- > Antton Irusta idazlearekin topaketa-saioa, umeentzat. Abenduaren 15ean, 18:00etan, liburutegian.

Larrabetzu

- > Kontakizun laburren lehiaketaren sariak banatzea. Azaroaren 25ean, 19:30ean, Anguleri kultur etxean.
- > Gabonetako postalen sariak banatzea. Abenduaren 16an, 17:30ean, eskolako jantokian.

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolin jokatzea, etorri zaitez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

MODA INFANTIL
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaindzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental ZAINDUZ hortz klinika

Txorierriko etorbidea, 9 - Langa Arteaga sarraina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzaindzu.com | www.dentatzaindzu.com

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

t o k a k

EGUNERO ZABALIK

Orduegia:
13:00etik 15:30ra arte
20:00etatik 23:30ra arte

Etxera eramateko zerbitzua: 1€

Bestorrena 5, Behea-48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Zapalak
Arropa
Osagarriak
Nazioarteko markak

ganix

Txorierriko etorbidea, 9-10. lokala
(Arteaga sarraina)
48160 DERIO
94 454 20 13
www.ganix.com

R P A

INFORMATIKA HANDIZKARIAK

PINOA POLIGONOA 2C, 5. PAB. - ZAMUDIO-
TEL: 944 521 544 - rpm@rpmmayoristas.com

1000 m baino gehiago
zure zerbitzura



18 URTE BAINO
GEHIAGOKO ESKARMENTUA

MANTENTZE ZERBITZUA
ETA TEKNIKOA

GABONETAN
PREZIORIK ONENAK



ELEKTRONIKA ORO HAR:

-TELEBISTAK
-KONTSOLAK
-PORTATILAK
-TABLET-AK...

-MARKA GUZTIAK

ETA ORAIN ERREAZAGOA DA EROSTEA: WWW.CHOLLOSDEFABRICA.COM



Rhynux

ZURE SEGURTASUNA, GURE LEHENTASUNA

PINOA POLIGONOA 2C, 5. PAB. - ZAMUDIO-

TEL: 944 521 544 - www.rhynux.com



SEGURTASUNA ORO HAR:

-BIDEO-ZAINTZA
-ALARMAK
-SARREREN KONTROLA
-EBASKETEN KONTRAKOAK
-SUTEEN KONTRAKOAK
-ONTZIDIAK KONTROLATZEA

SEGURTASUNA:
DENDAK
ETKEAK
GARAJEAK...

Gabonetan ez galdu saskia lortzeko aukera



GABONETAKO SASKIEN ZOZKETA

Abenduaren 1etik 20ra bitartean, Derioko denda elkartuetan erosten baduzu

